




HEZKUNTZA SAILA  
Hezkuntza Sailburuordetza  
Hezkuntza Ikuskaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Viceconsejería de Educación  
Inspección de Educación



**hezkuntza ikuskaritza**



**EAEko Hezkuntza Ikuskaritza**

Urteko Plana – 2024-25 ikasturtea



## AURKIBIDEA

|      |   |    |
|------|---|----|
| 1.   | SARRERA   | 3  |
| 2.   | TESTUINGURUA ETA JUSTIFIKAZIOA  | 4  |
| 3.   | ESKU HARTZEKO ARDATZAK  | 8  |
| 4.   | 2024-2025 URTEKO PLANAREN HELBURUAK                                     | 10 |
| 5.   | KALITATE SISTEMA  | 14 |
| 6.   | 2024-2025 IKASTURTEKO EKIMENAK  | 18 |
| 6.1. | Ekimen giltzarriak 2024-2025 ikasturtean                                | 18 |
| 6.2. | 2024-2025 Ikasturteko ekimenen zehaztapena                              | 21 |
| 6.3. | Saileko programa-proiektuak:  | 26 |
| 6.4. | Ikuskariaren koadernoak eta Ikastetxeetan datu bilketa                  | 26 |
| 7.   | EUSKALDUNTZEA ETA EUSKARAREN NORMALKUNTZA                               | 28 |
| 8.   | IKUSKARITZAREN FORMAZIOA. FORMAZIO PLAN INTEGRALA. GOGOETA ETA EKINTZA. | 28 |
| 9.   | IKUSKARITZA-FUNTZIOAREN EBALUAZIOA                                      | 29 |
| 10.  | LURRALDEETAKO URTEKO PLAN OROKORRA ZEHAZTEA                             | 30 |
| 11.  | 2024-2025 URTEKO PLANAREN EBALUAZIOA ETA EGUNERATZEA                    | 30 |
| 12.  | URTEKO PLANAREN EGOKITZAPENAK   | 31 |
| I.   | ERANSKINA   |    |
|      | Urteko Planaren egokitzapenak   |    |
|      | Ikaskuntza, berrikuntza eta hobekuntza                                  |    |
| II.  | ERANSKINA   |    |
|      | Lan taldeen antolaketa  |    |
| III. | ERANSKINA   |    |
|      | Formazio Plan Integrala   |    |



## 1. Sarrera

Aurkezten dugun 2024-2025eko Hezkuntza Ikuskaritzaren plan hau 2023-2026 hirurteko planaren bigarrena da. lazko planean genion modura, aurtengo planak, guztiek egon beharko luketen modura, atzera begira ez ezik, aurrera begira ere egon beharko du: atzera begira, azken urteotan izan ditugun hutsuneak bideratzeko eta ondo egindakoa sustatzen jarraitzeko; aurrera begira, mugimendu etengabean dagoen gizarte batek eskatzen dituen erronkei erantzuteko, hauek identifikatuz eta, ahal denetan, aurre hartuz, jarrera heuristikoa lagun.

Atzera-aurrerako begiratu hau da Hezkuntza Ikuskaritzaren 2023-2026 hirurtekoaren oinarri, guztion artean, elkarlanean, diseinatu eta landu duguna. Elkarlan hau egiatzkoa izan dadin, ezinbestekoa izango da plantilla osatzen dugunon garapen profesionala, inplikazioa eta kide izatearen sentimendua sendotzen jarraitzea.

Azken urteotako planetan bezala, aurtengo plana egiteko garaian kontuan hartu dira, besteak beste, honako hauek: 2023-2024 ikasturteko barne eta kanpo auditoretzen emaitzak; asebetetze galdetegiak; AZ eta lan-taldeetan egindako lanean jasotakoak; eta, bereziki, ikuskarien iritzi jasoketatik eratorritakoak.

Hau esanda, garbi dugu Hezkuntza Ikuskaritzaren planak (hirurtekoak nahiz urterokoak) diseinatzeko eta egiteko garaian ikuskari guztion parte hartzeak aktiboa behar duela izan. Helburu hori lortze aldera, aurtengo planak bide horretan beste urrats bat eman du eta 2024ko uztailaren 11an ikuskari guztiakin egindako bilkuran aurkeztu ziren memorietatik jasotakoa hartu du aintzat, besteak beste. Bide hau hobetzen eta sakontzen joatea izango da datozen urteotako erronka nagusienetariko bat.

Urteko plan honek, esan bezala, hirurtekoan ezarritako helburuak izango ditu oinarri, eta hauek, ikuskaritzaren esku-hartzearen hiru ardatzi erreparatuz landuko dira: ikuskaritzari begira, ikastetxeei begira eta Hezkuntza Saileko gainerako zerbitzuei begira. Ikastetxeei dagokienean, aurtengo ikasturtean aparteko garrantzia hartuko dute ebaluazio hezitzaileak, bizikidetzak eta Lidergo Pedagogikoak. Ikuskaritzari dagokionean, ikuskarion formazio integralari azpimarra egitea ezinbestekoa dela irizten diogu, hezkuntzan ematen ari den berrikuntza-prozesuan erreferente bihurtu gaitzen. Azkenik, Hezkuntza Sailaren gainerako zerbitzuei dagokienean, lanean jarraituko dugu, bereziki, Sailak ezarritako lan-ildoekin bat eginez, betiere, sistemaren kalitatea lortze aldera. Guzti horretaz gain, eta hiru ardatzok bustiko duen langarraren moduan, pertsonen eremuan identitate profesionalak landuko ditugu.

Ezin ahantz dezakegu, halaber, etorkizuneko euskal hezkuntza-sistema diseinatzen ari den une honetan, Hezkuntza Ikuskaritzak eredu behar duela izan, hezkuntza-komunitateari begirada profesionala, independentea eta kualifikatua eskainiz, eta guztion artean eraikitzen ari garen bide horretan, urteko plan hau tresna ezin egokiagoa dela sinetsita gaude. Testuinguru honetan kokatu behar dugu azken ikasturtean eta datozenetan pilotatu(ko) ditugun lan antolaketa modu berriak. Uste dugu Hezkuntza Ikuskaritzan lan eredu berriak pilotatzeak funtsezko hainbat abantaila eskaintzen dituela. Eskala handiko ezarpenaren aurretik arazoak identifikatzea eta konpontzea ahalbidetzen du, ikuspegi eraginkorragoa eta efizienteagoa ziurtatuz. Gainera, pilotaje horiek langileen motibazioa eta konpromisoa areagotu dezakete, aldaketa- eta garapen-prozesuetan parte hartzen baitute. Pilotajearen datuak biltzeko eta feedbacka egiteko oinarri sendoa ematen du erabaki informatuak hartzeko, hezkuntza-ikuskaritzaren kalitatea eta garrantzia hobetuz. Ikasturte honetan, Lidergoan eta Bizikidetzan jarriko ditugu abian lan egiteko modu berri hauek.





Ingurumaria honetan, azken ikasturtean ikuskariaren profil kompetentziala definitu dugu, egungo gizarteak zehazten dituen erronkei erantzun gaurkotu eta eraberritu bat emate aldera. Identitate profesional honek gidatu behar gaitu ikuskari profil gaurkotua zehazten jarraitzeko

Orobat, euskara ardatz duen Euskal Hezkuntza Sistema eleaniztun batean ikuskarion jardun profesionalean euskarareriko dugun jarrerak aparteko garrantzia hartzen duela konbentziturik gaude. Hari-mutur horretatik tiraka, urteko planaren aitzinsolas honetan egoki iruditzen zaigu Ikuskaritza arautzen duen 98/2016 Dekretuak gai honen inguruan jasotzen duena azpimarratzea: *Formazio eta euskararen erabileraren sustapena lehentasunezkoak izango dira Hezkuntza Ikuskaritzaren Urteko Planetan*. Testuinguru honetan ezinbestekoa irizten diogu, 19/2024 DEKRETUA, otsailaren 22koa, *Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoak* eskaintzen dituen aukerak baliatzeari.

Azkenik esan, urteko plan honek, azken urteotakoak bezala, hitzurre honen eta testuinguruaren azterketa baten ondoren, 2024-2025 ikasturterako planteatutako helburuak eta horiek lortzea erraztuko duten ekimenak aurkezten dituela, besteak beste.

Hau guztia kontuan hartuta, aurkezten da 2024-2025 urteko Hezkuntza Ikuskaritzaren Plana, gizarteak hezkuntza arloan dituen premia aldakorrei eraginkortasunez erantzuteko tresna gisa.

## 2. Testuingurua eta justifikazioa

2024-2025 urteko plan hau honako testuinguru-elementu hauek baldintzatuko dute bereziki:

### a. Aldaketak ikuskaritzako plantillan

Azken urteotan Hezkuntza ikuskaritzan aldaketa nabarmenak izaten ari dira, erretiroen kopuruak gora egin duelako, eta, ondorioz, ikuskari berriak sartu behar izan dutelako sistemaren eraginkortasunari eusteko. Esperientzia eta ezagutza instituzional handia izan duten ikuskariek erretiroa hartu dute, eta hori erronka bat da edozein erakunderentzat, ezagutzak transferitzeari eta jarraitutasunari dagokienez. Ikuskaritzan, trantsizio honi ekiteko, ikuskari berriak hautatzeko prozesuak egiten ari gara, hautagaiek beharrezko trebetasun teknikoak izateaz gain, hezkuntza kalitatearekiko eta etengabeko hobekuntzarekiko konpromiso sendoa dutela baieztatuz. Ingurumaria honetan, ezinbestekoa da lanean jarraitzea ikuskaritzara ahalik eta profesional kompetenteenak erakartzeko.

Honekin batera, ikuskari berrien harrera-planean txertaturik, ikuskari berrientzako prestakuntza- eta tutoretza-programa sendo bat ezartzen ari gara, haien integrazioa eta garapen profesionala bizkortzeko diseinatua. Programa horrek hezkuntza araudi eta prozedurei buruzko prestakuntza teorikoaz gain, ikuskari esperientziadunen tutoretza biltzen ditu. Tutoretza honi esker, ikuskari berriek zuzeneko orientazioa eta laguntza jasoko dute, ikuskaritzarako hasierako urratsetan hain beharrezkoak direnak.

Guztiarekin, planteatzen diren erronka berriei aurre egiteko, beharrezkoa da ikuskariok ezagutza eta esperientzia hori ahalik eta arinen eskuratzea aipatutako erronkei ekiteko. Beraz, tutoretza, formazio, autoebaluazio eta hautapen prozesuetan sakontzen jarraitu behar dugu, zerbitzuaren beharretara eta hezkuntza-komunitateari eskaini behar dion erantzunera egokitutako gaitasunak erreferentziazat hartuta. Gaitasun horiek jada garatua dugun ikuskarion profil kompetentzian sustraituak egon behar dute



## b. Ikastetxeetatik eta hezkuntza-administrazioari beste zerbitzu batzuetatik datozen eskarien kopurua eta konplexutasuna handitzea

Ikuskaritza-zerbitzuak programatutako jardueraz gain, lankidetzaz jarduerak egiten dira administrazio-prozesuen kudeaketan, arautegi berrien diseinuan, formazio-prozesuetan eta herritarren eskakizunei erantzuteko lanetan, besteak beste.

Hori dela eta, Ikuskaritza-zerbitzuak ahalik eta eraginkortasun handiena bilatu behar du bere zereginetan, eta lehentasun-irizpideak ezarri behar ditu bere jardueren garapenean.

Horretaz gain, ikuskaritzaren eraginkortasuna areagotze aldera ditugun prozesuen eta lantaldeen berrikuspena egin beharko dugu. Ariketa horrek azken urteotan indarrean egon diren prozesuen kopurua doitzea ekarri behar du eta, horrenbestez, gure jarduna egiazko beharretara egokitzea.

## c. Hezkuntza Sailaren planak eta proiektuak

Hezkuntza Ikuskaritzaren eginkizunetako bat da Hezkuntza Sailak sustatutako programen jarraipena egitea, eskuratu nahi diren helburuen lorpen-maila egiaztatzeko. Gainera, helburu horietako asko diseinatzen eta garatzen laguntzen du.

Hona hemen ildo aipagarrienetako batzuk: Hobekuntzarako estrategia; Eraldatzen Programa; Eusle-Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna indartzea; Hedatze; Digitalizazio Plana; Zuzendaritza eta Lidergoa; Metodologia berriak; Bizikasi ekimena; Curriculum eta ebaluazio hezitzailea; ikuspegi kompetentziala ikas-irakas prozesuetan; tutoretza-planak; 17/2023 hezkuntza legearen berriaren ondoriozko arauaren garapena (curriculumaren garapena, ebaluazioarena...); etab.

Hauek guztiek planteatutako dizkiguten erronkei eta aukerei aurre egiteko Ikuskari guztion formazioak egundoko garrantzia hartzen du. Formazioa saio hauen ebaluazioetan jasotako emaitzak izango dira hurrengoetako formazio saioen gidari.

## d. Memoriaren ondorioak

Urteko memoriak ikastetxeetan egiten diren jardueren emaitzak jasotzen ditu. Bertan, talde arduradun bakoitzak proposamenak egiten ditu Ikuskaritzaren esku-hartzea hobetzeko eta, hala badagokio, bideratzeko. Gainera, hezkuntza-sistemaren egoerari buruzko datuak eta ondorioak jasotzen dira.

## e. Gogobetetze-inkestak eta ikuskarrien artean egindako iritzi jasoketa

Urteko Ikuskaritza Planean jasotako jarduerari eta ikastetxeetan egiten diren moduari buruzko iritzia jasotzeko, besteak beste, administrari eta ikastetxeei zuzendutako gogobetetze-inkestak erabiltzen dira. Galdetegi anonimo horien bidez jasotako informazioa ikuskatze-batzordean aztertzen da.

Iazko ikasturtean aparteko garrantzia hartu zuten apirila-maiatzean ikuskari guztiokin egin ziren zonazonakako bilerek. Bilera hauetatik jasotako iritzi nahiz gogoetek eta hauetan oinarriturik erakunde gisa hartu ditugun konpromisoek urteko plan hau diseinatzeko garaian bidea marraztu digute.

## f. Auditoretzen emaitzak

Plan honen helburuak formulatzean, kontuan hartu dira barne- eta kanpo-auditoretzen emaitzak.





### g. Digitalizazio-prozesuetan aurrerapenak. Tresna informatiko berriak

Ikuskaritzak berea duen V-92 aplikazio informatikoaz gain, azken ikasturteetan, gorakada nabarmena izan dugu bestelako tresna informatikoen erabileran: Office 365 : SharePoint, Onenote, Outlook egutegia, Forms, Teams; HIKU... Horretaz gain, administrazio-kudeaketarako Tramitagune plataformak gero eta presentzia handiagoa hartzen ari da gurean. Ikasturte honetan, tresna horiek edo beste batzuek Ikuskaritza-zerbitzuari eskain diezazkioketen aukera berrietan sakondu behar dugu eta, horretarako, tresna digital hauek eskaintzen dizkiguten aukerak baliatu ahal izateko, hemen ere, formazioaren garrantzia azpimarratu nahi dugu.

V-92ari dagokionez, gurean dugun bitartean, duguna hobetzen jarraitu behar dugu. Horretarako, bi bide aurreikusten ditugu urteko plan honetan: V-92 AZ-ren lan-taldea indartzearen beharra, batetik; eta, EJIekoekin harreman-sare egonkor eta sistematizatu bat eraikitzea, bestetik. Testuinguru horretan EJIekoek ikastetxeekin egiten dituzten bileratan presente egongo gara, besteak beste, ikastetxeek dituzten eskarien berri izateko.

Guztiarekin bide bat eraikitzearen beharra ikusten dugu, maneiatzen ditugun datu ugarien erabilpen jasangarria egite aldera.

Digitalizazio planean sakontzen jarraituko dugu

### h. 2023-2024 ikasturtean ikuskariek adierazitako behar berriak

Ikuskariekin egindako aurrez aurreko iritzi-jasoketa.

Hezkuntza Ikuskaritzak definituak dituen interes-taldeei eskaintzen dien zerbitzuaren kalitatea etengabe hobetzen joatea izan da gure erakundearen azken urte luzeotako helburu behinena. Horretarako, 2023-2024 ikasturtean, berrikuntza batzordearekin batera geldi-une bat egin eta gure begi-belarriak barrura begira jarri nahi izan genituen Ikuskaritzaren egunerokoan zimentarriak diren lau gairen inguruan gogoeta egiteko: barne-komunikazioa; esku-hartzea; lidergoa; eta, lan giroa.

Arestian esan moduan, ariketa honetatik ateratako emaitzak aintzat hartu dira aurtengo plana diseinatzeko garaian.

### i. Beste lorpen edo produktu garrantzitsu batzuk

Azken bi ikasturteotan aurrera egin da, besteak beste, honako prozedura hauetan:

- Web orria eguneratzea.
- Irakaskuntzako kompetentzia-profilaren dokumentu deskribatzailea.
- Ikuskaritza-eginkizunaren kompetentzia-profilaren bertsio berria.
- Ikuskaritza-eginkizunaren kompetentzia-profila erreferentziatzen hartuta, zerbitzu-eginkizunetan dauden ikuskariak ebaluatzeko eta autoebaluatzeko dokumentua.
- Excel aginte-taula, urteko planaren helburuen jarraipena egiteko.
- Arau berriak ekoiztea: ebaluazio agindua...
- Berrikus hilabetekaria.
- Ezagutza transmititzeko plana.





- Ikuskarion lan-kargaren azterketa.
- Zerbitzuan sartzen diren pertsonen tutoretza-plana.

Ikasturte honetan beharrezkoa izango da horietako batzuk osatzen joatea, beste batzuen jarraipena egitea, dagozkionak ebaluatzea eta ebaluazio horren ondoren erabakiak hartzea.

Faktore horiek kontuan hartuta, hurrengo puntuan azaltzen diren helburuak planteatzen dira. Hala ere, azpimarratu behar da horiek hezkuntza-sistemaren premia aldakorrei erantzun egokia emateko egoerak eskatzen duen zuhurtziaz eta malgutasunez landu behar direla.



### 3. Esku hartzeko ardatzak

Ikuskaritzaren egitekoak ardatz jakin batzuen bidez garatzen dira. Horiek helburuak lortzeko erreferente izango dira, eta Ikuskaritza-jarduerari koherentzia emango diote ikuspegi orokor batetik.

3 dira 2023-2026 hiru urteko planean ezarritako ardatzak:

1. Ikuskaritza (A1)
2. Ikastetxeak (A2)
3. Lankidetzak (A3).

Hala ere, adierazi behar da garatu beharreko jarduera gehienek hirurei dagozkien esparruetan eragiten dutela, erkidego honetako Hezkuntza Ikuskaritzak hartu duen izaera sistemikoa eta holistikoa zentroen ikuskatze-ereduaren arabera diseinatzen eta garatzen baitira.

Hiru ardatza horietatik sei eremu orokor eratortzen dira 2023-2026 hiru urteko planean, eta horiek dira 2023-2026 hirurteko zazpi helburuen iturri:



**ARDATZA (A)****A1: IKUSKARITZA****ER1: IKUSKARITZAREN HOBEKUNTZA****A2: IKASTETXEAK****ER2: IKASTETXEETAN ERAGITEKO  
ESTRATEGIAK****ER2.1: IRAKASLEAK****ER2.2: LIDERGOA****ER2.3: IKASLEEN ONGIZATEA****ER2.4: ERALDAKETA PEDAGOGIKOA****A3: LANKIDETZA****ER3: LANKIDETZAREN SUSTAPENA****2023-2026 Helburuak**

1.- Egun dugun antolaketa eta kudeaketa-sistema, behar berrietara egokitzea.

2.- Ikuskaritza-zerbitzuaren gaitasun profesionalaren hobekuntza sendotzen jarraitzea.

3.- EAEko ikastetxeetako irakasleen gaitasun profesionala hobetzea.

4.- Ikuskaritza ikastetxeko lidergoan eragiten jarraitzea, zuzendaritza funtzioaren diseinu berria inplementatuz, eta zuzendaritza proiektuen kalitatea areagotzen lagunduz.

5.- Araudiak hezkuntza-komunitateari aitortzen dizkion eskubideak eta betebeharrak bermatzeko, ikasleen ongizatea sustatzeko estrategiak garatzea, elkarbizitzari probentziotik eraginez.

6.- Hezkuntza ingurunearen eraldaketa positiboa ardatz, Curriculum berriaren inplementazioaren ikuskatzea egitea, arreta berezia jarriz ikasleen ebaluazio hezitzailean.

7.- Hezkuntza-administrazioarekiko lankidetzeta eta, oro har, gizarteari ematen zaion erantzuna hobetzen aurrera egitea.





## 4. 2024-2025 Urteko planaren helburuak


**Belztuta** daudenak dira 2024-2025 ikasturte honetako helburu nagusiak (Ikuskarrien iritzi jasoketaren deboluzio-txostenean esan bezala, lau helburu lehenetsiz).

### 2024-2025 Helburuak

| 1. ARDATZA  | 2. ARDATZA   | 3. ARDATZA   |
|---|--|--|
| <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Egun ikuskaritzan dugun antolaketa eta lan egiteko modu berriak pilotatzea</li> <li>2. Ikuskarion Lan Eskaintza Publikoa antolatzea.</li> </ol> | <ol style="list-style-type: none"> <li>3. Irakaskuntza funtzioaren ebaluazioarekin lotutako hainbat prozeduratan hobekuntzak txertatzea.</li> <li>4.  <b>Ikastetxeetako lidergoan hobetzen jarraitzea, ebaluazio eredu berria inplementatuz proiektuen kalitatea eta kantitatea areagotzeko.</b></li> <li>5.  <b>Ikasleen ongizatea sustatzeko ikastetxeetako estrategiak eta protokoloen ezarpena gainbegiratzea, elkarbizitzari probentziotik eraginez, Bizikasik ezartzen duenari jarraituz.</b></li> <li>6.  <b>Curriculumaren inplementazioaren ikuskatzea egitea, ikasleen kompetentzietan oinarritutako ebaluazio hezitzailea areagotzeko.</b></li> </ol> | <ol style="list-style-type: none"> <li>7. 2024-2025 ikasturtean indarrean dauden hezkuntza sailaren proiektu eta ekimenen garapenean parte hartzea.</li> <li>8. Ingurune hurbileko, Estatuko eta Europako ikuskaritzekin lankidetzan aritzea, bai eta hezkuntza-inguruneko beste erakunde batzuekin ere, berrikuntza sustatzen duten jardunbide egokiak trukatzeko.</li> </ol> |
| <ol style="list-style-type: none"> <li>9.  <b>Izaera transbertsala: Pertsonak. Identitate profesionalak garatzen jarraitzea (ikuskarriak eta irakasleak)</b></li> </ol>                   |  |  |



Jarraian, **2024-2025 urteko helburuak (h)** eta haien lorpen-adierazleak aurkezten dira, 2023-2026 hiru urteko planaren helburu **(H)** bakoitzari lotuak.

| Hiru urteko helburuak  | 2024-25 Ikasturteko helburuak   | Helburuaren lorpen adierazleak  |
|--|---|---|
| <b>H1.</b> Egun dugun antolaketa eta kudeaketa-sistema, behar berrietara egokitzea.  | <b>h1.</b> Egun ikuskaritzan dugun antolaketa eta lan egiteko modu berriak pilotatzea   | Zuzendarien hautaketarekin egindako pilotajea hedatu da.<br>Jazarpen eta suizidio kasuekin espezializazio pilotajea egin da.  |
| <b>H2.</b> Ikuskaritza-zerbitzuaren gaitasun profesionalaren hobekuntza sendotzen jarraitzea.*   | <b>h2.</b> Ikuskarion Lan Eskaintza Publikoa (LEP) antolatzea   | LEPa egin da  |
| <b>H3.</b> EAEko ikastetxeetako irakasleen gaitasun profesionala hobetzea.   | <b>h3.</b> Irakaskuntza funtzioaren ebaluazioarekin lotutako hainbat prozeduratan hobekuntzak txertatzea.   | Praktiketako funtzionarioen ebaluatzeko tresna digitala sortu da<br>Praktiketako funtzionarioen ebaluazioa %100ean gauzatu da.<br>AZ021312 Irakaskuntzarako gaitasunaren ebaluazioaren dokumentazioa egokitu da   |
| <b>H4.</b> Ikuskaritza Ikastetxeko lidergoan eragiten jarraitzea, zuzendaritza funtzioaren diseinu berria inplementatuz, eta zuzendaritza proiektuen kalitatea areagotzen lagunduz | <b>h4.</b>  <b>Ikastetxeetako lidergoan hobetzen jarraitzea, ebaluazio eredu berria inplementatuz proiektuen kalitatea eta kantitatea areagotzeko</b> | Bigarren urteko ebaluazioan, K3 kompetentzian (lidergo pedagogikoa) eskuratze maila eskasean dauden zuzendariak gehenez % 3a dira<br>Aurkeztu diren proiektuen ebaluazioen batez bestekoa %10a igo da.<br>Zuzendaritza proiektua aurkezteko formazioa egin da.<br>2024-2025 ikasturteko aginduan publikatzen diren ez ohiko zuzendarien %20ak gutxienez parte hartu du merezimendu lehiaketan<br>Ez ohiko izendapena duten zuzendaritza taldeen ebaluaziorako dokumentazioa eta prozedura definitu dira |



|  |  |  |
|--|--|--|
|  |  | Ikuskariok egin behar dugun ebaluazioan, bestelako eragileen laguntza jaso da(zuzendariak, Berritzeguneak) ebaluazioa prozesua aberasteko (Mentorizazioa, Kanpo kontrasteak...)  |
| <b>H5.</b> Araudiak hezkuntza-komunitateari aitortzen dizkion eskubideak eta betebeharrak bermatzeko, ikasleen ongizatea sustatzeko estrategiak garatzea, elkarbizitzari probentziotik eraginez. | <b>h5.</b> <b>Ikasleen ongizatea sustatzeko ikastetxeetako estrategiak eta protokoloen ezarpena gainbegiratzea, elkarbizitzari probentziotik eraginez, Bizikasik ezartzen duenari jarraituz.</b> | Ikastetxeetan jazarpen eta jarrera suiziden protokoloen aplikazioa % 100ean gainbegiratu da.<br><br>Zuzendarien ase-betetze maila 8 baino altuagoa da  |
| <b>H6.</b> Hezkuntza ingurunearen eraldaketa positiboa ardatz, Curriculum berriaren inplementazioaren ikuskatzea egitea, arreta berezia jarritz ikasleen ebaluazio hezitzailean.                 | <b>h6.</b> <b>Curriculumaren inplementazioaren ikuskatzea egitea, ikasleen konpetenzietan oinarritutako ebaluazio hezitzailea areagotzeko.</b>   | Aztertu diren programazioen % 80an ebaluazioari dagokionean ikuspegi konpetentziala txertatu dela baieztatu da.<br><br>Aztertu diren ikastetxeen %80an ikas egoeretan ebaluazio hezitzailearen ebidentziak aurkitu dira. |
| <b>H7.</b> Hezkuntza-administrazioarekiko lankidetzeta eta, oro har, gizarteari ematen zaion erantzuna   | <b>h7.</b> 2024-2025 ikasturtean indarrean dauden hezkuntza sailaren proiektu eta ekimenen garapenean parte hartzea.   | Proiektu eta ekimen horietaz arduratzen diren batzordeetan parte hartu da.   |
|  | <b>h8.</b> Ingurune hurbileko, Estatuko eta Europako ikuskaritzekin lankidetzan aritzea, bai eta hezkuntza-inguruneke beste erakunde   | Erkidegotik at berrikuntza sustatzen duten bi ekimen ekarri dira eta gure erakundeant txertatzeko egokitasuna aztertu da..   |






HEZKUNTZA SAILA  
Hezkuntza Sailburuordetza  
Hezkuntza Ikuskaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Viceconsejería de Educación  
Inspección de Educación

hobetzen aurrera  
egitea.

batzuekin ere, berrikuntza sustatzen duten  
jardunbide egokiak trukatzeko.

h9.  Pertsonak: identitate profesionalak garatzen jarraitzea (ikuskariak eta irakasleak)





## 5. Kalitate Sistema

### Hezkuntza ikuskaritzaren makroprozesuak eta prozesuak

Urteko plan honen helburuak lortzeko jarduera-ildoak eta martxan jarri beharko diren jarduerak deskribatu aurretik, jarduera horiek kudeatzen diren markoaren azalpen labur bat egin behar da.

Hirurteko Plan Orokorrean -misioan, ikuspegiaren eta balioen markoan adierazitako helburuak lortze aldera orientatzen ditu bere helburuak plan horrek- erabilitako ikuspegiatik abiatuta, EAEko Hezkuntza Ikuskaritza, kalitatea kudeatzeko ISO 9001-2015 sistemaren arabera, ondorengo makroprozesuetan antolatzen da:

- **MP 01.-** Estrategia, Planifikazioa eta antolaketa.
- **MP 02.-** Zerbitzuak identifikatu eta ematea.
- **MP 03.-** Giza baliabideen kudeaketa.
- **MP 04.-** Dokumentuen kudeaketa.
- **MP 05.-** Baliabide materialen kudeaketa.
- **MP 06.-** Neurketa, analisia eta hobekuntza.

Makroprozesu hauek guztiak ematen diote Ikuskaritzaren jarduerari laguntza eta jarduera hori, gehienbat, MP02 ZERBITZUAK IDENTIFIKATU ETA EMATEA makroprozesuan jasota geratzen da.

Halaber, ZERBITZUAK IDENTIFIKATU ETA EMATEA MP02 lau prozesutan antolatzen da, eta lau prozesu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzaren egitekoan definitutako alderdiei ematen diete erantzuna.

- **PR Ikastetxeek eman beharreko hezkuntza-erantzuna hobetzen laguntzea.**  
Ikastetxeen hezkuntza-ikuskatzearekin, batez ere, lotuta dauden azpiprozesuak sartzen ditu eta ikastetxeen funtzionamendua eta ikasleei ematen dieten hezkuntza-erantzuna, irakaskuntza-funtzioan aritzeko era eta zuzendaritza-funtzioa dira ardatzak. Jarduera horiek eremu horietan dauden premiak eta hobetzeko aukerak identifikatzen, hausnarketa egiteko formazio-prozesuak sortzen eta, ondorioz, balioa emango duten eta irakaskuntzan hobeto aritzeko eta emaitzak hobekitzeko lagungarri izango diren proposamenak egitera bideratuta daude.
- **PR Arau-kontrola/Eskubide eta eginbeharrak bermatzea.**  
Hezkuntza-erkidegoko kide guztien eskubide eta eginbeharrak betetzeko bermeari lotutako azpiprozesuak. Funtsezko erreferentzia indarreko legeria izango da. Jarduera horietan, gardentasuna, aukera-berdintasuna eta legeriaren izpirituaren arabekoak izango direla garrantzitsua izango du Ikuskaritzaren jarduerak helburu.
- **PR Gatatzak konpontzea. Elkarbizitza.**  
Ikastetxeetan elkarbizitza positiborako lagungarri izango diren balio, jarrera eta jarduerak sustatzeari eta hezkuntza-eremua guztiei errespetatuko zaien eta guztiak parte sentituko diren toki seguru baten gisa, fisikoki eta emozionalki, bizitzeko eskubidea bermatzeari lotutako azpiprozesuak dira. Elkarbizitzaren kudeaketari, eta eskola-jazarpenari, lotutako esku-hartzeak, portaerak zuzentzeko prozedurak, bitartekaritza-prozesuak, ikastetxe publikoetako pertsonalaren kontrako erasoak, funtzionario publikoen diziplina-erregimenaren garapena, berdintasuna eta hezkidetzaren sustatzeko prozesua, babesgabeziaren kontrako protokoloak gauzatzea, etab... sartzen ditu. Ikuskaritzaren esku-hartzeak gardentasuna, laguntza eta arau-aholkularitza ematen ditu eta, batez ere, gatatzak behar bezala kudeatuko direla bermatzen du,





esku-hartze horien emaitza zuzena izan dadin, guztien eskubideak berma ditzan eta elkarrekin bizitzeko gaitasuna garatu eta hobetzeko prozesua susta dezan.

– **PR Programen jarraipena. Sistemaren helburuak.**

Programa espezifikoen jarraipenari lotutako azpiprozesuak dira; izan ere, Lanbide Heziketako Sailburuordetatik eta Hezkuntza Sailburuordetatik jartzen dira programa horiek martxan, hezkuntza sistemaren helburuak lortzeko eta horretarako une bakoitzean sustatzen diren ildo estrategikoak aurrera eramateko laguntza eraginkorragoa eman dezaten ikastetxeek. Ikuskaritzaren esku-hartzea programa horien garapena erraztera eta sustatu dituzten helburuak bete diren edo ez baloratzera bideratuta egongo da.

Hezkuntza Ikuskaritzako Kalitate Batzordeak hala proposatuta, 2022-2023 ikasturtean Ikuskaritzak aurrera eramango dituen jarduerak, 6 Azpiprozesuetan eta hainbat Prozeduratan sailkatuko dira. Hauetaz gain, lan taldeak ere antolatu dira.

Hona hemen Azpiprozesu eta prozeduren ezaugarriak:

- **Azpiprozesua:** Azpiprozesu batek Helburuak, Lorpen adierazleak eta Ekintza plan bat izango ditu. Urte bukaeran Memoria bat egingo da, non urtean zehar egondako gorabeheri buruz hitz egiten den, urteko datuak jasotzen diren eta hobekuntza proposamenak adierazten diren.
- **Prozedura:** Prozedurak, burutu behar diren ekintzak dira. Helburu zehatzik ez izatea izan daiteke. Memoria egitea komenigarria da, zeren eta ekintza hauetatik eratorriko datuak behar dira ikasturteko Memoria Orokorreko, baina ez da derrigorrezkoa Hobekuntza proposamenak adieraztea.

Prozeduren kudeaketa, dokumentazioari begira, Azpiprozesuak baino arinagoak direla esan genezake.

V-92ra begira, Prozedurak orain arte tratatu diren bezala kudeatuko dira, hau da, Azpiprozesuak balira bezala, are gehiago, kodifikazio bera izango dute.

Prozedurak identifikatzeko, desberdintasun bakarra, AZ hizkien aurretik **PROZEDURA** hitza agertuko dela.

**Adibidea:**

Orain arte: **AZ022050 DAE EJA kontrola**

Aurrerantzean: **PROZEDURA AZ022050 DAE EJA kontrola**

Aurreko guztiaz gain, 2024-2025 ikasturteren lehen hiruhilekoan Euskaliteko Kudeaketa Aurreratuaren eredian ebaluazioa egingo dugu.



Hona hemen, 2024-2025 ikasturtera begira, **giltzarriak diren AZk eta lan-taldeak**:

## Lehentasunezkoak

1. **Ebaluazio hezitzailea.** (Curriculum eta ebaluazioa /Kanpo ebaluazioa)
2. **Ikastetxeetako lidergoa.**( Zuzendaritza funtzioaren ebaluazioa/ Zuzendariak hautatzea/ Zuzendaritza taldeen izendapena)
3. **Ikasleen ongizatea** (Eskola jazarpena eta bizikidetzaren planak)
4. **Pertsonak. Identitate profesionalak** (Irakasleen profila/ Ikuskarrien harrera eta tutoretza)

## Bestelakoak

- |  |  |  |
|--|--|--|
| <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Hedatze</li> <li>2. Dokumentazio akademikoa eta eskola emaitzak</li> <li>3. Eskola egutegiak eta ordutegiak</li> <li>4. Irakasleen titulazioak</li> <li>5. Kide anitzeko organoak aukeratzea (OOG)</li> <li>6. Ikasleen absentismoa</li> <li>7. Praktiketako funtzionarioen ebaluazioa</li> <li>8. Irakaskuntzarako gaitasunaren ebaluazioa (irakasteko konpetentzia)</li> <li>9. Ikuskarriaren koaderno eta ikastetxeen datu bilketa</li> </ol> | <ol style="list-style-type: none"> <li>10. Lanpostuaren profileraren egokitzeari buruzko ebaluazioa*</li> <li>11. Zuzendaritzakoak ez diren karguak*</li> <li>12. Eskariak / Jakinarazpenak*</li> <li>13. Kalifikazioen aurkako erreklamazioa*</li> <li>14. Euskara salbuespenak*</li> <li>15. Ikasleen jokabideak zuzentzeko prozedurak*</li> <li>16. DAE EJA kontrola*</li> <li>17. Ikasleen eta langileen grebak*</li> <li>18. NCE eta curriculum malgutzeko neurriak*</li> <li>19. Irakasleen absentismoa*</li> <li>20. Ikastetxe publikoetako langileei egindako eraso kasuak*</li> <li>21. Eskolatzeko Programa Osagarriak*</li> <li>22. Etxean eman beharreko hezkuntza-arreta*</li> <li>23. Jazarpen-aginduan oinarritutako bitartekaritza*</li> <li>24. Enplegatutako publikoen diziplina-araubidea*</li> </ol> | <ol style="list-style-type: none"> <li>25. Koaderno digitala**</li> <li>26. Irakasleen atxikipenak**</li> <li>27. Batxilergoko sari bereziak**</li> <li>28. Eskolatzeko batzordeak**</li> <li>29. Lekualdatze-lehiaketaren baremazioa**</li> <li>30. Unibertsitate sartzeko ebaluazio-proba**</li> <li>31. Eraldatzen**</li> </ol> |
|--|--|--|

## Batzordeak

- |  |   |
|--|---|
| <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Lanbide heziketako batzordea</li> <li>2. Kalitate batzordea</li> <li>3. Eguneratze normatiborako batzordea (Lex)</li> <li>4. Berrikuntzaren zaintza batzordea</li> </ol> | <ol style="list-style-type: none"> <li>5. Euskararen erabilera batzordea</li> <li>6. Berdintasun planaren batzordea</li> <li>7. Kanpo ekimena batzordea</li> <li>8. V92 aplikazioa Hezkuntza Ikuskaritza</li> <li>9. Digitalizazio batzordea</li> </ol> |
|--|---|

\* prozedurak dira, jarduerarako dokumentazioa prest dute baina ez dute lan talde aktiborik

\*\* kolaborazio prozedurak dira, saileko beste zerbitzu batzuekin lantzen dira eta behar berezi bati erantzuten diote





Gainera, **MP-01**, **MP-03** eta **MP-06** makroprozesuen markoan ondorengo jarduerak egiten dira:

#### **MP-01.- ESTRATEGIA, PLANIFIKAZIOA ETA ANTOLAKETA**

Hezkuntza Ikuskaritzak, kalitateari buruzko politikan xedatutakoa kontuan hartuta, nahi dituen helburuak lortzera bideratzea zerbitzua emateko eta agiriak eta kalitatea kudeatzeko sistemaren baliabideak kudeatzeko prozesuak

#### **MP-03.- GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA:**

Pertsonen gaitasun profesionalak hobetzeko jarduerak eta ezagutza ez galtzeko eta inplikazioa, partehartzea eta kide sentitzearen sentimendua areagotzeko estrategiak jasotzen ditu.

Era berean, Ikuskaritzako kide berriei tutoretza emateko eredua sustatzen duen taldearen lana ere jasotzen da, Horretaz gain, ikuskarrien profil konpententzialaren berrikuspena; ebaluazio-prozesuak; eta Ikuskaritzaren formazio-plana moduko ekimenak biltzen ditu.

#### **MP-06.- NEURKETA, ANALISIA ETA HOBEKUNTZA:**

Kalitatea kudeatzeko Hezkuntza Ikuskaritzaren sistema neurtu, berorren jarraipena egin eta aztertzeko aukera ematen duten mekanismoak zehaztea, aurrera eramaten diren jarduerak eta prozesuak eraginkortasunez egin ahal izateko moduko hobekuntza-bideak zehazteko asmoz.

Prozesu eta makroprozesu horietan jasotako jardueraz gain, Ikuskaritzak hezkuntza-administrazioarekiko lankidetzajarduera askotan parte hartzen du. Lankidetzajarduerak puntual edo sistematikoko eskaerei erantzuten dieten jarduerak dira. Aurreikusi gabeko edo hainbat arrazoiengatik garrantzi berezia hartu duten egoerei lotutako premiazko edo oso garrantzizko gaiei buruzko txostenak egitea barne hartzen dute hainbatetan. Horien artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- Beste zerbitzu batzuek sustatutako formazio-jardunaldietan laguntzea.
- Lan Eskaintza Publikoetan parte-hartzea.
- Herritarrek Hezkuntza Sailari egiten dizkioten kontsultei erantzunak prestatzea.
- Beste erakundeek planteatutako gaiei buruzko txostenak (Arartekoa, Fiskaltza, Legebiltzarra...).
- Sailaren programak diseinatzen eta sustatzen parte hartzea.
- Sailaren ordezkariak zenbait forotan.



## 6. 2024-2025 Ikasturteko ekimenak

### 6.1. Ekimen giltzarriak 2024-2025 ikasturtean

2024-2025 ikasturterako ikuskaritzaren jarduera-giltzarriak finkatzeko garaian, irizpide hauek hartu dira kontuan:

- Testuinguru-alderdi esanguratsuenak (arautegi berria, curriculum...).)
- Urteko planaren helburuekin lotura.
- Gure esku-hartzeak ikastetxeetan duen inpaktua.
- Gizartearen eskaerak eta eragina.
- Hezkuntza Sailaren helburuak eta eskaerak.

Aurrekoa kontuan harturik, hauek dira 2024-2025 ikasturteko ekimen-giltzarriak:

- a) Ebaluazio hezitzailea
- b) Ikastetxeetako lidergoa
- c) Ikasleen ongizatea
- d) Pertsonak. Identitate profesionalak

#### a) Ebaluazio hezitzailea

Curriculum berriaren inplementazioa da, zalantzarik gabe, azken ikasturte hauetako erronka nagusienetariko bat. Prozesu horretan ikastetxeen ondoan egon behar dugu, haien jardunaren inguruko hausnarketan lagundu eta curriculumak eskatzen dituen egiteko modu berriak sustatu. Horien artean, azpimarratuko genituzke: curriculumaren elementu berriak, horien araberrako programazioak, eremukako antolaketa, metodologia, irteera profil berritua, eta azkenik, ikasleen konpetentzietan oinarritutako ebaluazio hezitzailea. 2024-2025 ikasturte honetan curriculumaren eremuan ikasleen konpetentzietan oinarritutako ebaluazio hezitzailea indartu beharko litzateke eta ikuskaritzak erreferente izan behar du ikastetxeentzat.

Curriculumak agerian jarri du berria ez den baina oraindik berri egiten den konpetentzietan oinarritutako ebaluazio-eredua. Jakina da ebaluazioa aldatzen ez bada, nekez aldatuko dela ikaskuntza-irakaskuntza prozesua eta, horrenbestez, konpetentzien ebaluazioan sakontzeko urratsak eman beharko dira.

Hauek izango dira, beraz, gure egitekoak:

- Barne eta kanpo ebaluazioari buruzko gogoeta egiten lagundu ikastetxeei.
- Ikastetxeetako programazioetan ebaluazio atala gainbegiratu: ikasleen konpetentzietan oinarritutako ebaluazio hezitzailea eta kalifikazio irizpideak.



## b) Ikastetxeetako lidergoa.

Ikastetxeen arrakastarako gako nagusienetarikoa Zuzendaritza-taldeen lidergoa eta egonkortasuna dira. Zuzendaritza taldeek ikastetxearen funtzionamendura, bizikidetzara eta elkarlanera bideratuta egon behar dute. Horretaz gain, zuzendaritza taldeen ahaleginek lankidetzara, irisgarritasunera, harremanetan inbertitzera, arriskuak hartzera, gogoeta egitera eta erabakiak gardentasunez hartzera egon behar dute zuzenduak.

Eskola-lidergoa lotuta dago ikastetxearen misioarekin eta bere helburuak argi eta garbi zehaztuta izatearekin; ikastetxeko eta ikasgeletako eskola-giro orokorrarekin; irakasleen jarrerekin; irakasleek ikasgeletan dituzten jardunbideekin; ikasketa plana eta irakaskuntza antolatuta dauden moduarekin; eta ikasleek ikasteko dituzten aukerekin.

Zuzendaritza taldeek eskola-giroan eta ikastetxearen antolaketan duten eragina nabarmena da. Zuzendaritzak behar diren baldintzak eta testuingurua sortu behar ditu, besteak beste, irakasleek beren lan-jarduna hobetu dezaten. Horregatik, ikasturte honetan ere zuzendaritzei lagunduko zaie, haien formazioan parte hartuz eta bidelagun izanez, beren lana ahalik eta modu profesionalenean egin dezaten.

Zuzendaritzei bikaintasunerantz orientatuko zaie, konpetentzien gida lerroen bidez, uneoro adieraziz eskuratu behar dituzten gaitasunak.

Zuzendaritza taldea lidergoan ahalduntzea sustatuko da, honek ikastetxearen emaitzetan, motibazioan eta inplikazioan eragiten duelarik, eta ondorioz ikastetxearen kalitatean. Ahalduntze hori gauzatu ahal izateko, Ikuskaritzatik, zuzendaritza taldeekin elkarlanean aritzeko giroa suspertuko da.

Hauek izango dira, beraz, gure egitekoak:

- Zuzendaritza funtzioaren ebaluazioaren diseinu berria inplementatuko da 1. eta 2. urtean dauden zuzendaritza taldeekin.
- Proiekturik gabeko zuzendarien ebaluazio diseinu berria egin.
- Zuzendaritza taldeen ebaluazioari buruzko Agindu zirriborroa birpasatu eta tramitatzeko prest utzi.

## c) Ikasleen ongizatea

Azken urte hauetan ikastetxeetako bizikidetzaren positiboaren zaintza konstante bat izan da ikuskaritzan. Ikasleen kasuan, eskola-jazarpenaren kudeaketa eta jarraipena eta ikasleen jokabideak zuzentzeko prozedurak izan dira gure esku-hartzean modu antolatu eta sistematikoan garatu ditugunak.

Jokabide erreaktiboaz harago, bizikidetzaren positiboari probentziotik eragiteko pausuak ematen jarraituko dugu.

Ikasleen ongizatea helburu, ikastetxeek leku segurua izan behar dute eskola-komunitatea osatzen duten ororentzat, eta ikasleentzat bereziki.

Aurten, pilotaje moduan, talde espezializatu bat sortu da hainbat zonatako ikuskariez osaturik eta zona horietan talde honetako arduradunak izango du gaia kudeatzeko eginkizuna.



Hauek izango dira, beraz, gure egitekoak:

- Bizikasi ereduari erreparatuz, elkarbizitza positiboaren sustapena egingo da, probentziotik eraginez.
- Jazarpen kasuen kudeaketa egingo dugu, jarraipen-egoeran geratu ziren kasuak aintzat hartuz.
- Jokabide suiziden aurrean ikuskaritzak burutu beharreko prozedura doitu eta hedatuko da.
- Hezkuntza Sailak ikasleen ongizaterako dituen protokolo, jarraibide edota bestelakoen azterketa eta zabalkundea egingo dugu.

#### d) **Pertsonak. Identitate profesionalak**

Irakasle baten lanbide-profilak, oro har, horietatik espero diren kompetentzia profesionalak definitzen ditu. Irakasleen profila definitu beharra dago ikasleek lortu beharreko irteera profilari erantzun diezaion eta beraien jarduerak hezkuntza kalitatea lortzen lagun dezaten. Profila ziurtatzen du irakasleak bat datozela hezkuntza-helburuekin eta aldi berean, zehazten du zer espero den haiengandik emaitzei eta jardunari dagokienez. Irakasleek profil bera dutenean, modu koherentean lan egin dezakete irakaskuntza, ebaluazio eta ikuspegi pedagogiko bateratuak ezarriz.

Ondo zehaztutako irakaskuntza-profila izanik, erakundeek trebakuntza eta garapen profesional espezifikoak eskaini dezakete, irakasleei beren kompetentziak hobetzen laguntzeko. Horrek, aldi berean, kalitate handiagoko hezkuntzari laguntzen dio.

Irakaslearen profila ez da estatikoa; eboluzionatu egin behar du hezkuntza- eta gizarte-eskaera aldakorretara egokitzeko. Profil malgu eta eguneratuak aukera ematen die irakasleei sortzen ari diren erronka berrietara egokitzeko.

Profila zehazteak koherentzia emango die irakasleei dagokien prozedura ezberdinei, besteak beste, hautaketari, etengabeko formazioari, akreditazioari eta ebaluazioari.

Hauek izango dira, beraz, gure egitekoak:

- Jada, egina dugun irakasleen profil kompetenziala berriro aztertu eta beste Erkidegoetan egindakoarekin kontrastatu, eta, hala dagokionean aberastu.
- Ikasturte honetan praktikan dauden irakasleen ebaluazioa gainbegiratu.




## 6.2. 2024-2025 Ikasturteko ekimenen zehaztapena

Aurreko guztia kontuan hartuta, honako hauek dira 2024-2025 ikasturterako aurreikusten diren ekimenak:

| 2024 – 2025 Helburua  | Lorpen adierazleak   | Ekimenak   | Iraila | Urria | Azaroa | Abendua | Urtarrila | Otsaila | Martxoa | Apirila | Maiatza | Ekaina |
|---|--|--|--------|-------|--------|---------|-----------|---------|---------|---------|---------|--------|
|   |  |  |        |       |        |         |           |         |         |         |         |        |
| h1. Egun ikuskaritzan dugun antolaketa eta lan egiteko modu berriak pilotatzea                      | Zuzendarien hautaketarekin egindako pilotajea hedatu da.         | Zuzendarien hautaketarekin egindako pilotajea hedatu.  |        |       |        |         |           |         |         |         |         |        |
|   | Jazarpen eta suizidio kasuekin espezializazio pilotajea egin da. | Pilotajea martxan jartzeko planifikazioa zehaztu.  |        |       |        |         |           |         |         |         |         |        |
|   |  | Baliabideak eskaini.   |        |       |        |         |           |         |         |         |         |        |
|   |  | Ikasturtean zehar jarraipen bilerak egin   |        |       |        |         |           |         |         |         |         |        |
| h.2. Ikuskarion Lan Eskaintza Publikoa (LEP) antolatzea   | LEPa egin da   | Langile Zuzendaritzarekin LEP antolaketan parte hartu  |        |       |        |         |           |         |         |         |         |        |
| h.3. Irakaskuntza funtzioaren ebaluazioarekin lotutako hainbat prozeduratan hobekuntzak txertatzea. | Praktiketako funtzionarioen ebaluatzeke tresna digitala sortu da | Ikuskari guztiek tresna digital berria erabili.  |        |       |        |         |           |         |         |         |         |        |
|   |  | EJIEkoekin koordinazio bilerak egin.   |        |       |        |         |           |         |         |         |         |        |
|   | Praktiketako funtzionarioen ebaluazioa %100ean gauzatu da.       | Praktiketako funtzionarioen ebaluazio agirietan azaltzen diren itemak irakasle profil berrira egokitzen hasi |        |       |        |         |           |         |         |         |         |        |
|   |  | Arazoen aurrean esku hartu   |        |       |        |         |           |         |         |         |         |        |



| 2024 – 2025 Helburua   | Lorpen adierazleak   | Ekimenak   | Iraila | Urria | Azaroa | Abendua | Urtarrila | Otsaila | Martxoa | Apirila | Maiatza | Ekaina |  |
|--|--|--|--------|-------|--------|---------|-----------|---------|---------|---------|---------|--------|--|
|  |  |  |        |       |        |         |           |         |         |         |         |        |  |
|  | AZ021312 Irakaskuntzarako gaitasunaren ebaluazioaren dokumentazioa egokitu da  | Dokumentazioa errebisatu eta araudi berrira egokitu  |        |       |        |         |           |         |         |         |         |        |  |
| <b>h.4.  Ikastetxeetako lidergoan hobetzen jarraitzea, ebaluazio eredu berria inplementatzen jarraituz proiektuen kantitatea eta kalitatea areagotzeko.</b> | Lehenengo urteko zuzendari berriei esperientzia duten zuzendarien laguntza eskaini zaie  | 15 proiektudun zuzendarietara mentorizazioa eskaini.   |        |       |        |         |           |         |         |         |         |        |  |
|  | Bigarren urteko ebaluazioan, K3 konpetentzian (lidergo pedagogikoa) eskuratze maila eskasean dauden zuzendariak gehienez % 3a dira | 45 ikastetxeetan kanpo kontrastea egin   |        |       |        |         |           |         |         |         |         |        |  |
|  | Aurkeztu diren proiektuen ebaluazioen batez bestekoa %10a igo da.  | Proiektu onak identifikatu eta hauen ezaugarriak zuzendarien eta ikuskarien artean partekatu.      |        |       |        |         |           |         |         |         |         |        |  |
|  | Zuzendaritza proiektua aurkezteko formazioa egin da.   | Zuzendaritza proiektua aurkezteko formazioa egin.  |        |       |        |         |           |         |         |         |         |        |  |
|  | Ez ohiko izendapena duten zuzendaritza taldeen ebaluaziorako dokumentazioa eta prozedura definitu dira.                            | Ez ohiko izendapena duten zuzendaritza taldeen ebaluaziorako dokumentazioa eta prozedura definitu. |        |       |        |         |           |         |         |         |         |        |  |




| 2024 - 2025 Helburua  | Lorpen adierazleak  | Ekimenak   | Iraila | Urria | Azaroa | Abendua | Urtarrila | Otsaila | Martxoa | Apirila | Maiatza | Ekaina |  |
|---|---|--|--------|-------|--------|---------|-----------|---------|---------|---------|---------|--------|--|
|   |   |  |        |       |        |         |           |         |         |         |         |        |  |
|   | 2024-2025 ikasturteko aginduan publikatzen diren ez ohiko zuzendarien %20ak gutxienez parte hartu du merezimendu lehiaketan                           |  |        |       |        |         |           |         |         |         |         |        |  |
| h.5. <b>Ikasleen ongizatea sustatzeko ikastetxeetako estrategiak eta protokoloen ezarpena gainbegiratzea, ikastetxeari ematen zaion erantzuna hobetuz</b> | Ikastetxeetan jazarpen eta jarrera suiziden protokoloen aplikazioa % 100ean gainbegiratu da.<br><br>Zuzendarien ase-betetze maila 7 baino altuagoa da | Jazarpen kasu guztien jarraipena %100ean egin.   |        |       |        |         |           |         |         |         |         |        |  |
|   |   | Ikuskariaren eskuhartze zehatzak jazarpen galdetegietan erregistratu.                                  |        |       |        |         |           |         |         |         |         |        |  |
|   |   | Jokabide suiziden prozedura doitu.   |        |       |        |         |           |         |         |         |         |        |  |
|   |   | Zonako bileretan, hiru hilean behin gutxienez informazioa eman   |        |       |        |         |           |         |         |         |         |        |  |
|   |   | Kasuen % 70a ikasturtean zehar itxi  |        |       |        |         |           |         |         |         |         |        |  |
|   |   | Beste zerbitzuekin hiru hilabeteetan behin koordinazio bilera bat egin                                 |        |       |        |         |           |         |         |         |         |        |  |
| h.6. <b>Curriculumaren implementazioaren ikuskatzea egitea, ikasleen</b>  | Aztertu diren programazioen % 80an ebaluazioari dagokionean ikuspegi kompetenziala txertatu dela baieztatu da   | Ikastetxeetan egiten duten ikasleen barne eta kanpo ebaluazioen emaitzen inguruko gogoetan parte hartu |        |       |        |         |           |         |         |         |         |        |  |



| 2024 - 2025 Helburua   | Lorpen adierazleak   | Ekimenak  | Iraila | Urria | Azaroa | Abendua | Urtarrila | Otsaila | Martxoa | Apirila | Maiatza | Ekaina |
|--|--|---|--------|-------|--------|---------|-----------|---------|---------|---------|---------|--------|
|  |  |   |        |       |        |         |           |         |         |         |         |        |
| <b>kompetentzietan oinarritutako ebaluazio hezitzailea areagotzeko</b>   | Aztertu diren ikastetxeen %80an ikas egoeretan ebaluazio hezitzailearen ebidentziak aurkitu dira   | Ebaluazio hezitzailearen ereduaren inplementazioa ikastetxeen %20ean jarraitu eta erregistratu. |        |       |        |         |           |         |         |         |         |        |
|  | Irakurketa eta matematika proiektuan parte hartuko duten ikastetxeen ehuneko ehunetan egin da kanpo eta barne emaitzen azterketa eta alderaketa. | Beste zerbitzuekin koordinazio bilerak egin eta martxan jartzen diren ekimenetan parte hartu    |        |       |        |         |           |         |         |         |         |        |
| h7. 2024-2025 ikasturtean indarrean dauden hezkuntza sailaren proiektu eta ekimenen garapenean parte hartzea.  | Proiektu eta ekimen horietaz arduratzen diren batzordeetan parte hartu da  | Eraldatzen talde teknikoan parte hartu  |        |       |        |         |           |         |         |         |         |        |
|  |  | Hedatze programaren jarraipena egin   |        |       |        |         |           |         |         |         |         |        |
| h.8. Ingurune hurbileko, Estatuko eta Europako ikuskaritzekin lankidetzan aritzea, bai eta hezkuntza-inguruneke beste erakunde batzuekin ere, berrikuntza sustatzen duten jardunbide egokiak trukatzeko. | Erkidegotik at berrikuntza sustatzen duten bi ekimen ekarri dira eta gure erakundearen txertatzeko egokitasuna aztertu da.                       | SICI-ko tailerretan parte hartu eta plantillari horren berri eman.                              |        |       |        |         |           |         |         |         |         |        |
|  |  | STESSIE proiektuaren tailerretan parte hartu eta plantilari horren berri eman.                  |        |       |        |         |           |         |         |         |         |        |
|  |  | Estatuko beste erkidegoetako ikuskaritzekin esperientziak elkar trukatu                         |        |       |        |         |           |         |         |         |         |        |





| 2024 - 2025 Helburua | Lorpen adierazleak  | Ekimenak   | Iraila   | Urria  | Azaroa  | Abendua | Urtarrila | Otsaila | Martxoa | Apirila | Maiatza | Ekaina |
|----------------------|---|--|--|--|---|---------|-----------|---------|---------|---------|---------|--------|
|                      |   |  | <p><b>h.9.</b>  <b>Pertsonak:</b> identitate profesionalak garatzen jarraitzea (ikuskarriak eta irakasleak)</p> | <p><b>Ikuskariak:</b><br/>Ikuskarien profila erabili da %100ean ebaluazio prozesuetan.</p> | Ikuskarien profila rubriketara eraman eta ebaluazio prozesuetan profila erabili |         |           |         |         |         |         |        |
|                      | <p><b>Irakasleak</b><br/>Irakasleen profila beste bi eragileekin kontrastatu da. Erkidegoen arteko bi tailerretan partu hartu da.</p> | <p>Jada, egina dugun irakasleen profil konpetentziala berriro aztertu.</p> <p>Beste Erkidegoetan egindakoarekin kontrastatu, eta, hala dagokionean aberastu.</p> |  |  |   |         |           |         |         |         |         |        |





### 6.3. Saileko programa-proiektuak:

Hezkuntza Ikuskaritzaren eginkizunetako bat da Hezkuntza Sailak sustatutako proiektuen jarraipena egitea, lortu nahi diren helburuen lorpen-maila egiaztatzeko. Gainera, helburu horietako asko diseinatu eta garatu laguntzen du. Testuinguru horretan, 2024-2025 ikasturtean, Bigarren Hezkuntzako 97 ikastetxe publiko eta 61 itunpekotan garatu ari diren **HEDATZE** proiektua batetik, eta, bestetik, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako 83 ikastetxe publikotan aurrera eramaten ari diren **ERALDATZEN** Kontratu Programa azpimarratuko genituzke.

- **HEDATZE:** Proiektua deitzen duen Ebazpenak dioen moduan, Proiektua zehazteko, ikastetxeek hezkuntza-ikuskaritzaren eta Berritzeguneeen aholkularitza izango dute. Orobat, jarraipena, ebaluazioa eta parte hartzen duen ikastetxe bakoitzaren proiektuaren helburuen betetze-maila aztertzea, Hezkuntzako Ikuskaritzari dagokio.
- **ERALDATZEN:** Programa honek, Berritzeguneko eta Hezkuntza Ikuskaritzako aholkulariekin lankidetzan, lortu nahi du ikastetxeek hiru ikasturterako plangintza estrategiko bat egitea. Ikastetxeek Sailarekin sinatutako kontratu programa honen barruan, ikuskarion esku-hartzea ezinbestekoa da. Gure esku hartzea bi planoetan garatuko da aldi berean: lehenean, sailak proiektu hau aurrera eramateko berriaz sortutako Batzorde estrategikoan eta teknikoan parte hartuz; bigarrenean, ikastetxeko erreferentziako ikuskariak programaren jarraipena eta ebaluazioa eginez bere ohiko jardueraren arloan eta ikastetxearen ikuskaritza barruan. Lan hori ikastetxean erreferentziako ikuskariak egingo du ikastetxeko Eraldatzen programaren tutorearekin eta ikastetxe bakoitzean ezarritako talde eragilearekin koordinatuta.
- Hobekuntza Programak

Proiektu hauen inguruko ikuskarion esku-hartze zehatza, bakoitzeko berriaz sorturiko ikuskaritzako lantaldeek zehaztuko dute.

Orobat, Hezkuntza Ikuskaritzak parte hartuko du Sailak aurten berriaz diseinatu duen hobekuntza estrategian. Era berean, atal desberdinen artean egiten diren koordinazio bileratan parte hartuko dugu, gure eskuhartzea Sailak ezartzen dituen ildo estrategikoekin bat egin dezan eta ikastetxeetara Saitetik iristen den mezuak kontraesanetan eror ez daitezela.

### 6.4. Ikuskariaren koadernoak eta Ikastetxeetan datu biltzea

Hezkuntza-ikuskaritzak ikastetxeen funtzionamendua hobetzen laguntzeko eta, horrela, ikasleei hezkuntza-erantzun onena ematea sustatzeko eredu bat finkaturik du. Eredu hori proaktiboa da. Hasteko, ikasturte bakoitzaren hasieran, esku hartzeko helburuak planifikatzen dira, eta, amaitzeko, hobekuntza-proposamenak egiten zaizkio ikastetxeari, ikasturtean egindakoa ikuspegi global eta sistemiko batetik aztertu ondoren. Horretarako, ikastetxean eta ikastetxearekin egiten diren ekintza guztiak integratu eta erlazionatu beharko genituzke. Planteamendu horrek, laguntza eta aholkularitza teknikoaz gain, ikastetxeetan beren jarduerari buruzko hausnarketa-prozesuak bultzatzea eskatzen du, etengabeko ikaskuntza eta hobekuntza errazteko.

Ikastetxeen ikuskatzea ikuspegi holistikoa horretatik, ikuskariaren koadernoak ezinbesteko tresna behar du izan hain beharrezkoa den ikastetxearen argazki orokor bat izateko. Erreferentziazko ikuskari bakoitzak ikastetxe horretan egiten duen lanaren isla da koadernoak eta gure arteko transmisio kanala bermatuko duen tresna.





Hezkuntza ikuskaritzaren funtzio diren aholkularitza, ebaluazioa eta kontrola uztartuko dira esku-hartzean, eta hainbatetan datu-bilketa egingo da V-92aren bitartez, ikastetxe bakoitzaren garapenaren erregistroa egiteko eta Hezkuntza Sailari hainbat alderdiri buruzko informazioa emateko.





## 7. Euskalduntzea eta euskararen normalkuntza

Hezkuntza Ikuskaritzak dituen helburuen artean, komunikazioetan, txostenetan eta ikastetxeekiko harremanetan euskararen erabilera bultzatzea eta hobetzea daude. Horretarako, Hezkuntza Ikuskaritzak, besteak beste:

- Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak zainduko ditu, ikuskaritzak duen hizkuntza ofizialak erabiltzeko protokoloa kontuan harturik.
- Euskararen erabilera sustatuko du, Hezkuntza Ikuskaritzaren barneko komunikazioetan eta hezkuntza komunitateko beste kide batzuen arteko harremanetan.
- Ikuskaritzak euskaraz egiten dituen komunikazioen hobekuntza bultzatuko du, komunikazio horien kopuruari eta kalitateari dagokienez.
- Euskararen araudiari eta erabilera egokiari buruzko prestakuntza sustatuko du.

## 8. Ikuskaritzaren formazioa. Formazio plan integrala. Gogoeta eta ekintza.

Eskaintzen dugun zerbitzuaren hobekuntza, Hezkuntza Ikuskaritzaren etengabeko erronka izan da betidanik. Gizartearen eskakizun berrietara egokitzeko, eta, ahal den guztietan, aurre hartzeko gaitasuna duen Ikuskaritza bat nahi dugu. Estrategia garbi bat edukiz eta lorgarriak eta bideragarriak izango diren helburuak ezarriz; geldirik ez dagoen erakunde bat gara.

88 kideez osaturiko erakunde honetan, partekatutako lidergo bat eraikitzeak oinarri behar du izan. Irakaskuntzan aldaketarako eta hobekuntzarako bektorea izan nahi badugu, lider pedagogikoak ere izan behar dugu, irakasleei laguntzeko eta aholkularitza kualifikatua emateko. Hezkuntzako ikuskariek lehenetsuna eman behar diete ikastetxeetan egiten dituzten jarduerari, modu horretan bakarrik lagunduko baitzaie aldaketei, jardunbide egokiak sustatuz eta bultzatuz konfiantzazko eta autogogoetako giroan. Horretarako, ikuskariek kompetentzia profesional egokiak garatu behar dituzte, ezagutza teknikoak eta teorikoak modu orekatu eta egokian uztartuz. Kompetentzia profesional horiek ardatz eta erreferente izango dira formazio plan hau diseinatzeko garaian.

Orobat, bistan da, Hezkuntza Ikuskaritza ezin dela ikastetxeetako bizikidetzaren ingurunetik urrun egon. Pertsonen arteko harremanak, harreman sozialak eta profesionalak nahasten diren esparru delikatu eta funtsezko horri lagundu behar dio.

Ingurumaria honetan, hezkuntzako ikuskarrien kompetentziak garatzea ezinbestekoa da, besteak beste, erresilientzia, gaitasun digitala eta enpatia sustatuz. Eta, jakina, hau guztia lortu ahal izateko etengabeko formazio ezinbesteko dela irizten diogu, ikuskarion eginkizunak eta jardunak garatzen lagunduko duena, espezifikotasun- eta kualifikazio-baldintza batzuen pean.

Horrenbestez, 2024-2025 urteko Formazio Plana oinarrituta dago, besteak beste, 2023-2026 Hirurteko planaren helburuetan. Hau horrela, Ikuskaritzaren formazio eta haren jardunaren ebaluazio-prozesuak ezinbestekoak dira jardueren garapen eraginkorra eta etengabeko hobekuntza lortze aldera.

2024-2025 ikasturteko formazio-planak urteko plan honetan proposatutako helburuak lortzen lagundu behar du, Hezkuntza Ikuskaritzaren eremu estrategikoak eta ekimen giltzarriak aintzakotzat hartuta.





Formazio eraginkorra lortu ahal izateko, Ikuskaritza-plantillaren behar profesionalak kontuan hartu behar dira. Gauzak horrela, erantsitako Formazio Plan Integralean jasotzen da bide-orria.

Orobat, lan-talde (AZ, Batzordeak, etab) bakoitzak, beharren arabera, jorratzen duen gaiaren inguruko barne-formazioa sustatuko du eta, egokia irizten duenean, plantillan zabalduko da.

Gainera, gure praktikari buruzko hausnarketarako eta guztion arteko ezagutza eraikitzeke bultzatuko dira, ikuskarion interesei erantzun nahian.

Bestalde, azkeneko urteotan gertatzen ari den ikuskarien aldaketa dela eta, pertsonak elkar ezagutze aldera, lurralde arteko formazio saioak ere bultzatuko dira, toki desberdinetako ikuskariei elkarguneak sortarazteko eta Hezkuntza Ikuskaritzaren kide izatearen sentimendua areagotze aldera.

Nazioarte zein estatu mailako topaketak, irakaskuntzaren eta ikuskaritzaren eraginkortasunari buruzko ikerketa berrietan oinarritutako formazio jarduerak ere bultzatuko dira.

Horretaz gain, jakintzaren transferentzia ziurtatzeko moduak bilatzeari lehentasuna emango zaio. Gure zerbitzuan azkeneko urte hauetan plantilla aldatzen ari da etengabe, Hezkuntza ikuskarien jubilazio ugari suertatzen ari direlako.

Hortaz, III. eranskinean, ikasturte osorako plantillarentzat formazio plan integrala aurkezten da.

Orobat, urteko plan honetan sortutako beharrei erantzuteko aurkezten den formazio planaz gain, noizbehinka, ikasturtean zehar ikuskarientzat interesekoak izan daitezkeen bestelako formazio saioak egon daitezke. Iazko ikasturtean ikuskariekin egin genuen iritzi jasoketari erantzunez egindako deboluzio-txostenean jaso bezala, hona hemen 2024-2025 ikasturtean sor daitezkeen formazio saio horietara joan ahal izateko baldintzak:

- IKUP honetako helburuekin bat egitea.
- Zerbitzuaren beharrianetara egokitua egongo da. Horrenbestez, formazio saio berara doan ikuskarien kopuruak Lurraldeka ez du %15a gaindituko. Betiere, bermatuko da une horretan aktibo dauden ikuskarien %85a zerbitzuan egotea.
- Ikuskarriaren eskaera idatzia jaso ondoren, ikuskari nagusiak emandako baimena izatea.
- Ikuskarriak bere kabuz eskatutako baimena denean, bost egun edo saio izango dira gehienez ikasturte bakoitzean eta ez da kalte-ordainik jasoko.
- Baimena jaso ahal izateko aipatutako baldintza guztiak bete beharko dira

## 9. Ikuskaritza-funtzioaren ebaluazioa

Ikuskaritzaren funtzioaren ebaluaziorako Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzari buruzko ekainaren 28ko 98/2016 Dekretua da gure marko orokorra eta eredutzat hartzen dugu ikuskarion funtzioa betetzeko beharrezko gaitasun teknikoak, profesionalak, gizartekoak eta etikoak zehaztean.

Aurreko ikasturteetan garaturiko ikuskarriaren eginkizunetarako konpetentziak oinarri hartuta, profila eguneratu da.

Ikuskaritza funtzioaren konpetentzia profesionalak zehaztu eta erregistratzeko aukera emango duen ikuskarriaren konpetentzia matrizea diseinatuko da.





Ikuskariaren eginkizunaren kompetentzia-profilaren bertsio berri horren bitartez zerbitzu-eginkizunetan dauden ikuskariak ebaluatuko dira.

Ikuskarien autoebaluazio eta ebaluaziorako prozesu hauek direla medio, EAEko Hezkuntza Ikuskaritzako zerbitzuari hobekuntzak ekarriko dizkio bai ikuskariaren banakako kompetentziei begira baita erakundeari ere.

Alde batetik, 98/2016 Dekretuak zehazten duen bezala, zerbitzu eginkizunetan dauden ikuskariei lanaldia luzatze aldera, ebaluazio positiboa behar izango dute. Hortaz, egoera horretan dauden ikuskariak ebaluatuko dira eta horretarako, txosten erdua berriztu da, aipatutako kompetentzia matrize berria oinarri hartuta.

Bestetik, ikuskaritzaren plantillaren ebaluazioari dagokionez, kompetentzia matrize berri hau oinarria izango da zerbitzuaren ebaluazio orokorra egin ahal izateko. Horren helburua da definitzea erakundearen alde sendoak eta baita hobetzeko esparruak ere.

## 10. Lurraldeetako urteko plan orokorra zehaztea

Hezkuntza ikuskaritzaren urteko plana Lurralde bakoitzean zehaztuko da. Planaren Lurraldeetako zehaztapenak Hezkuntzako Ikuskari Nagusiak onetsiko ditu. Eranskin bezala planteatu behar da.

Zona bakoitzeko ikuskaritza-taldeak antolatuko ditu ikasturte bakoitzeko jarduerak, Ikuskari Nagusiak ezarritako urteko planaren arabera eta Ikuskaritzako lurralde-buruak egindako Planaren Lurraldeko zehaztapenaren arabera.

## 11. 2024-2025 Urteko planaren ebaluazioa eta eguneratzea

Urteko Plan honen betetze-mailaren ebaluazioa Lurralde Arteko Batzordeak egingo du, bai eta Lurralde Burutzek ere, zonako burutzen koordinazio-bileretan eta zonako lantaldeen bileretan.

Gainera, ikasturtean zehar, Ikuskatze Batzordeak (Ikuskaritza Nagusia, lurralde-buruak eta zonako buruak) ikuskariekin egindako iritzi jasoketaren emaitzak aztertuko ditu.

2024-2025 ikasturtea amaitzean, Urteko Plan hau ebaluatuko da, honako hauek kontuan hartuta:

- Lurralde Arteko Batzordeak ikasturtean egindako jarraipenaren ondorioak, Ikuskaritzak egindako lanaren balorazio orokorra eta Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren eraginkortasunari buruzkoa.
- 2024-2025ko formazioaren emaitzak, inpaktua neurtzeari dagokionez.
- Proposatutako helburuen lorpen-mailaren jarraipenetik lortutako datuak.
- Auditoretzen (barrukoak eta kanpokoak) emaitzak.
- Azpiprosesuetako eta lan-batzordeetako taldeek egindako ebaluazioaren emaitzak, egindako lanari eta lortutako emaitzei dagokienez.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren barneko eta kanpoko hartzailleen gogobetetzea neurtzearen azterketa.
- Memoretan jasotako emaitzen azterketa.





- Hezkuntzako Ikuskaritzak eskaintzen dituen zerbitzuen hartzaileen iradokizunak, kexak eta erreklamazioak.
- Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren kalitate-politika eta dokumentazioa berrikustearen emaitza.

Ikasturteko kontrol panelean lehenetsiko dira lorpen adierazle nagusiak.

Urteko Plan honen ebaluazioa Ikuskaritza Zentralak egindako Sistemaren Berrikuspenari buruzko Txostenean (Memoria) jasoko da.

## 12. Urteko planaren egokitzapenak

**I. eranskinean**, urteko planaren aldaketa posibleak -Batzorde berriak sortzea, helbururen bat betetzeko edo jarduera jakin batzuk egiteko ezintasunaren aurreikuspena, aurreikusi gabeko ekintza berriak,...- eta ikaskuntza- eta hobekuntza-mugarriak (egiten diren aurrerapenak eta lorpenak) jasotzeko gunek bat aurkezten da.

Vitoria-Gasteiz, sinaduraren datan

**Xabier Balerdi Iraola**  
Hezkuntza Ikuskari Nagusia



# ERANSKINAK







## I. Eranskina

### Urteko Planaren egokitzapenak Ikaskuntza, berrikuntza eta hobekuntza

Eranskin honek irekita uzten du espazio bat, plan hau garatzen den heinean betetzen joango dena. Bertan, eman ahala, hasierako plangintzan egin beharreko aldaketa guztiak sartuko dira, testuinguruaren inguruabarretara, sortzen diren premietara eta lortzen diren emaitzetara egokitzeko.





## II. Eranskina

### Lan taldeen antolaketa

Planaren Lurraldeetako zehaztapenean une jakin batzuetarako, lantalde gutxi batzuetan, ikuskari laguntzaileak izendatzeko aukera izango du Lurraldeburuak

#### Ikastetxeak hobetzen laguntzea

| Azpiprozesua   | Egiteko aldia  | Aplikazio eremua          | Ikuskaritza zentrala | Lurralde arteko Taldea<br>* Trakzio arduraduna                     | Lurraldeko Taldea  | Ekimenak  |
|--|----------------|---------------------------|----------------------|--|--|---|
| <b>AZ021320</b><br><b>ZUZENDARITZA FUNTZIOAREN EBALUAZIOA</b><br><b>AZ021359</b><br><b>ZUZENDARIAK HAUTATZEA</b> | Ikasturte osoa | Proiektudun zuzendaritzak | Arrate Oianguren     | M. Jauregui<br><b>A. Baraiaetxaburu *</b><br>N. Uriguena<br>G. Elu | Hautaketa eta kontrastea:  | 15 proiektudun zuzendariei mentorizazioa eskaini.   |
| <b>AZ021360</b><br><b>ZUZENDARITZA TALDEEN IZENDAPENA</b>  |                |                           |                      |  | M. Morras<br>N. Uriguena<br>K. Lekunberri.<br>U. Zorrozua<br>A. Mendia<br>Z. Isuskiza<br>G. Elu<br>E. Bidegain | 45 ikastetxeetan kanpo kontrastea egin  |
|  |                |                           |                      |  | C. Seco<br>J. Bollar<br>R. Aliaga  | Proiektu onak identifikatu eta hauen ezaugarriak zuzendarien eta ikuskarrien artean partekatu.<br><br>Ez ohiko izendapena duten zuzendaritza taldeen ebaluaziorako dokumentazioa eta prozedura definitu.<br><br>Zuzendaritza proiektua aurkezteko formazioa egin. Zuzendaritza taldeko kideen izendapena kudeatu. |



HEZKUNTZA SAILA  
Hezkuntza Sailburuordetza  
Hezkuntza Ikuskaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Viceconsejería de Educación  
Inspección de Educación

|   |                |                                  |                                     |  |   |
|---|----------------|----------------------------------|-------------------------------------|--|---|
| <p><b>AZ021371</b><br/><b>CURRICULUMA ETA</b><br/><b>EBALUAZIOA</b></p> | Ikasturte osoa | Ikastetxe guztiak<br>(lagin bat) | Arrate Oianguren<br>Nekane Zabaleta | <p>A. Jaio<br/>Z. Isuskiza<br/>R. Martinez<br/><b>M. Castillo*</b></p> | <p>Ikastetxeetan egiten duten ikasleen barne eta kanpo ebaluazioen emaitzen inguruko gogoetan parte hartu.</p> <p>Ebaluazio hezitzailearen ereduaren inplementazioa Ikastetxeen %20ean jarraitu eta erregistratu.</p> <p>Beste zerbitzuekin koordinazio bilerak egin eta martxan jartzen diren ekimenetan parte hartu</p> |
|---|----------------|----------------------------------|-------------------------------------|--|---|



HEZKUNTZA SAILA  
Hezkuntza Sailburuordetza  
Hezkuntza Ikuskaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Viceconsejería de Educación  
Inspección de Educación

|  |                                    |                     |                 |  |   |
|--|------------------------------------|---------------------|-----------------|--|---|
| <p><b>AZ021313</b><br/><b>PRAKTIKETAKO FUNTZIONARIOEN EBALUAZIOA</b></p>   | Ikasturte osoa                     | Ikastetxe publikoak | Nekane Zabaleta | <p><b>I. Lasso*</b><br/>M.J. Morgado<br/>A. Ximeno</p> | <p>Ikuskari guztiek tresna digital berria erabili.</p> <p>EJIEkoekin koordinazio bilerak egin.</p> <p>Praktiketako funtzionarioen ebaluazio agirietan azaltzen diren itemak irakasle profil berrira egokitzen hasi</p> <p>Arazoen aurrean esku hartu.</p> <p>Dokumentazioa errebisatu eta araudi berrira egokitu.</p> |
| <p><b>AZ021312</b><br/><b>IRAKASKUNTZARAK O GAITASUNAREN EBALUAZIOA (IRAKASTEKO KOMPETENTZIA)</b><br/><b>AZ023095</b><br/><b>ENPLEGATU PUBLIKOEN DIZIPLINA-ARAUBIDEA</b></p> | Ikasturte osoa<br>Eskarien arabera | Eskari guztiak      | Nekane Zabaleta | <p>A. Epelde<br/><b>M. Miguel*</b><br/>X. Elosegi</p>  | <p>AZren dokumentazioaren berrikuspena eta eguneratzea.</p>   |



HEZKUNTZA SAILA  
Hezkuntza Sailburuordetza  
Hezkuntza Ikuskaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Viceconsejería de Educación  
Inspección de Educación

|   |                                    |                     |                  |  |  |  |
|---|------------------------------------|---------------------|------------------|--|--|--|
| <p><b>PROZEDURA</b><br/><b>AZ022004</b><br/><b>IKUSKARIAREN</b><br/><b>KUADERNOA ETA</b><br/><b>IKASTETXEEN DATU</b><br/><b>BILKETA</b></p> | Ikasturte osoa                     | Ikastetxe guztietan | Arrate Oinaguren | <p>R. Sáez de Cortázar<br/><b>J. Jimenez*</b><br/>A. Agudo</p> |  | Jardueraren diseinua, hedapena, jarraipena eta ebaluazioa.                     |
| <p><b>PROZEDURA</b><br/><b>DOKUMENTAZIO</b><br/><b>AKADEMIKOA ETA</b><br/><b>ESKOLA EMAITZAK</b></p>  | 3. hiruhilabetea                   | Ikastetxe guztiak   | Nekane Zabaleta  | <p><b>X. Mendoza*</b><br/>I. Olaskoaga<br/>S. Celaya</p>       |  | Dokumentazio akademikoa argitara eman, eta hala badagokio, jarraibideak atera. |
| <p><b>PROZEDURA</b><br/><b>LANPOSTUAREN</b><br/><b>PROFILERA</b><br/><b>EGOKITZEARI</b><br/><b>BURUZKO</b><br/><b>EBALUAZIOA</b></p>        | Ikasturte osoa<br>Eskarien arabera | Eskari guztiak      | A. Bustinza      | Eskaeren aurreran, prozeduraren arabera jardun.                |  |  |



## Eskubide eta betebeharren bermea-arauen kontrola

| Azpiprozesua  | Egiteko aldia    | Aplikazio eremua                            | Ikuskaritza zentrala | Lurralde arteko Taldea  | Lurraldeko Taldea   | Ekimenak  |
|---|------------------|---|----------------------|---|---|---|
| <b>AZ022386</b><br><b>IKASLEEN ABSENTISMOA</b>  | Ikasturte osoa   | Derrigorrezko hezkuntzako ikastetxe guztiak | Nekane Zabaleta      | <b>P. Tomas*</b><br>I. Lasso<br>M. J. Fernandez<br>M. Olabarriaga |   | Absentismoaren kontrola eta jarraipena.<br>Kanpoko eragileekin (fiskaltza, udalak...) koordinatu. |
| <b>PROZEDURA</b><br><b>AZ022301</b><br><b>ESKARIAK / JAKINARAZPENAK</b>                             | Ikasturte osoa   | Ikastetxe guztiak eta eskariak              | Xabier Balerdi       | B. Cabria<br>L. Dorronsoro<br>M. Jauregui                         | Zona-buruak<br>Jefes/as de zona   | Eskaeren aurreran, prozeduraren arabera jardun.   |
| <b>PROZEDURA</b><br><b>AZ022383</b><br><b>EUSKARA SALBUESPENAK</b>                                  | 1. hiruhilabetea | Eskari guztiak                              | Ainhoa Bustinza      | <b>A. Epelde*</b><br>K. Lekunberri<br>A. Mendizabal               | M. Ruiz / Inma Pardo<br>J. Solabarrieta / P. Bidarte<br>/A. Lertxundi/G. Egaña/<br>B. Kortabarria/<br>M. Lizartza | Eskabideak kudeatzea. Gora jotzeko errekurtsoen erantzuna.  |
| <b>PROZEDURA</b><br><b>AZ022382</b><br><b>KALIFIKAZIOEN ETA IGAROTZEAREN AURKAKO ERREKLAMAZIOAK</b> | Ikasturte osoa   | Ikastetxe guztiak                           | Arrate Oianguren     | M. Jauregi<br>B. Cabria<br>L. Dorronsoro                          |   | Eskaeren aurreran, prozeduraren arabera jardun  |
| <b>PROZEDURA</b><br><b>AZ022050</b><br><b>EJA KONTROLA</b>  | Urtean zehar     | Ikastetxe guztiak                           | Nekane Zabaleta      | <b>X. Elozegi*</b><br>R. Saez de Cortazar<br>A. Egiraun           |   | Eskaeren aurreran, prozeduraren arabera jardun  |



|   |                            |                           |                  |  |  |   |
|---|----------------------------|---------------------------|------------------|--|--|---|
| <b>PROZEDURA</b><br><b>AZ022361</b><br><b>ZUZENDARITZAKOAK</b><br><b>EZ DIREN KARGUAK</b>                           | Urtean zehar               | Ikastetxe guztiak         | Nekane Zabaleta  |  |  | Eskaeren aurreran, prozeduraren arabera jardun  |
| <b>PROZEDURA</b><br><b>AZ022355</b><br><b>ESKOLA EGUTEGIAK</b><br><b>ETA ORDUTEGIAK</b>                             | 2. eta 3.<br>Hiruhilabetea | Ikastetxe guztiak         | Nekane Zabaleta  | M. Etxebarria<br><b>C. Seco*</b><br>X. Mendoza                           |  | Prozeduraren arabera jardun   |
| <b>PROZEDURA</b><br><b>AZ022073</b><br><b>NCE ETA</b><br><b>CURRICULUMA</b><br><b>MALGUTZEKO</b><br><b>NEURRIAK</b> | 1. hiruhilekoa             | Proposamen guztiak        | Arrate Oianguren | M. Miguel<br>A. Agudo<br>J. Nuñez<br><b>S. Celaya*</b>                   |  | Eskaeren aurreran, prozeduraren arabera jardun.   |
| <b>PROZEDURA</b><br><b>AZ022385</b><br><b>IRAKASLEEN</b><br><b>TITULAZIOAK</b>                                      | 2. eta 3. Hiru hilabetea   | Ikastetxe pribatuak       | Ainhoa Bustinza  | <b>G. Puyadena*</b><br>S. Celaya<br>J.S. Gartzia / M.<br>Agirreazkuenaga |  | Eskaeren aurreran, prozeduraren arabera jardun.<br>Laguntzarako dokumentazioa ikuskarien artean zabaldu |
| <b>PROZEDURA</b><br><b>AZ023092</b><br><b>IKASLEEN ETA</b><br><b>LANGILEEN GREBAK</b>                               | Ikasturte osoa             | Ikastetxe publiko guztiak | Ainhoa Bustinza  | X. Mendoza<br>R. Saez de Cortazar<br><b>J. Lucas*</b>                    |  | Eskaeren aurreran, prozeduraren arabera jardun.   |



|  |                                      |  |                                     |  |   |
|--|--------------------------------------|--|-------------------------------------|--|---|
| <b>PROZEDURA</b><br><b>AZ022353</b><br><b>IRAKASLEEN</b><br><b>ABSENTISMOA</b>                           | Ikasturte osoa                       | Ikastetxe publiko guztiak                              | Ainhoa Bustinza                     |  | Eskaeren aurreran, prozeduraren arabera jardun.   |
| <b>PROZEDURA</b><br><b>AZ022324</b><br><b>ESKOLATZEKO</b><br><b>PROGRAMA</b><br><b>OSAGARRIAK</b>        | Ikasturte osoa.<br>Eskarien arabera. | Eskari guztiak   | Ainhoa Bustinza                     | <b>Maite Ruiz*</b><br>A. Bastida<br>R. Aliaga          | Eskaeren aurreran, prozeduraren arabera jardun.   |
| <b>PROZEDURA</b><br><b>AZ022308</b><br><b>ETXEAN EMAN</b><br><b>BEHARREKO</b><br><b>HEZKUNTZA ARRETA</b> | Ikasturte osoa                       | Derrigorrezko Hezkuntzako ikastetxeak (+ salbuespenak) | Xabier Balerdi                      | M. Jauregui<br>B. Cabria<br>L. Dorronsoro              | Eskaeren aurreran, prozeduraren arabera jardun.   |
| <b>PROZEDURA</b><br><b>AZ022317</b><br><b>KANPO EBALUAZIOAK</b>  | Ikasturte osoan                      | Derrigorrezko Hezkuntzako ikastetxeak.                 | Nekane Zabaleta<br>Arrate Oianguren | I. Pardo<br><b>I. García de Garayo*</b><br>G. Puyadena | Ikastetxeetan egiten duten ikasleen barne eta kanpo ebaluazioen emaitzen inguruko gogoetan parte hartu-<br><br>Beste zerbitzuekin koordinazio bilerak egin eta martxan jartzen diren ekimenetan parte hartu.<br><br>Proben kontrola egin, lagin batean. |





## Bizikidetza – Gatazkak konpontzea

| Azpiprozesua   | Egiteko aldia  | Aplikazio eremua  | Ikuskaritza zentrala | Lurralde arteko Taldea  | Lurraldeko Taldea | Ekimenak  |
|--|----------------|-------------------|----------------------|---|-------------------|---|
| <b>AZ023387</b><br><b>ESKOLA-JAZARPENA</b><br><b>ETA BIZIKIDETZA-</b><br><b>PLANAK (BIZIKASI)</b>                                    | Ikasturte osoa | Ikastetxe guztiak | Ainhoa Bustinza      | Talde espezializatua:<br><b>V. Mosquera*</b><br>I. Cía<br>K. Bañares<br>N. Turran<br>D. Quintana<br>E. Martinez |                   | Jazarpen kasu guztien jarraipena %100ean egin.<br><br>Ikuskariaren eskuhartze zehatzak jazarpen galdetegietan erregistratu.<br><br>Jokabide suiziden prozedura doitu.<br><br>Zonako bileretan, hiru hilean behin gutxienez informazioa eman<br><br>Kasuen % 70a ikasturtean zehar itxi<br><br>Beste zerbitzuekin hiru hilabetez behin koordinazio bilera bat egin |
| <b>PROZEDURA</b><br><b>AZ023381</b><br><b>IKASLEEN</b><br><b>JOKABIDEAK</b><br><b>ZUZENTZEKO</b><br><b>PROZEDURAK</b>                | Ikasturte osoa | Ikastetxe guztiak | Arrate Oianguren     | I. Pardo<br><b>J. Idoyaga*</b><br>X. Elosegui   |                   | Eskaeren aurreran, prozeduraren arabera jardun.   |
| <b>PROZEDURA</b><br><b>AZ023091</b><br><b>IKASTETXE</b><br><b>PUBLIKOETAKO</b><br><b>LANGILEEI EGINDAKO</b><br><b>ERASOEN KASUAK</b> | Ikasturte osoa | Ikastetxe guztiak | Xabier Balerdi       |   |                   | Eskaeren aurreran, prozeduraren arabera jardun.   |



## Programen jarraipena – Sistemaren helburuak

| Azpiprozesua   | Egiteko aldia  | Aplikazio eremua                             | Ikuskaritza zentrala | Lurralde arteko Taldea                        | Lurraldeko Taldea | Ekimenak                               |
|--|----------------|--|----------------------|---|-------------------|--|
| <b>PROZEDURA</b><br><b>AZ024364</b><br><b>ERALDATZEN</b> | Ikasturte osoa | Programaren barruan dauden ikastetxe guztiak | Xabier Balerdi       | <b>B. Rubio*</b><br>M. Uribarren<br>A. Ibañez |                   | Eraldatzen talde teknikoan parte hartu |
| <b>PROZEDURA</b><br><b>AZ024365</b><br><b>HEDATZE</b>    | Ikasturte osoa | Programaren barruan dauden ikastetxe guztiak | Ainhoa Bustinza      | C. Bedoya<br>M. Castillo<br><b>J. Nuñez*</b>  |                   | Hedatze programaren jarraipena egin    |

## Beste prozedura eta batzorde batzuk

| Taldeak eta Batzordeak                                  | Ikuskaritza zentrala | Taldeko Ardurad. | Lurralde arteko Taldea                                    | Ekimenak   |
|---|----------------------|------------------|---|--|
| <b>(V92) APLIKAZIOA</b><br><b>HEZKUNTZA IKUSKARITZA</b> | Nekane Zabaleta      |                  | C. Seco<br><b>A. Eguiraun*</b><br>A. Zabala<br>I. Guirado | Lan taldeek behar dituzten prozedurei doikuntza teknikoak egin.<br>Aplikazioan sor daitezkeen arazoei erantzuna eman.                              |
| <b>DIGITALIZAZIO BATZORDEA</b>                          |                      |                  | C. Seco<br>A. Zabala<br><b>I. Guirado*</b>                | Plan digitala diseinatzea<br>Ikuskarien formazioa, hala badagokio.   |
| <b>IRAKASLEEN PROFILA</b>                               | Arrate Oianguren     |                  | <b>M. Morras*</b><br>M. Casado<br>A. Uranga               | Jada egina dugu irakasleen profil kompetentziala berriro aztertu<br>Beste erkidegoetan egindakoarekin kontrastatu eta, hala dagokionean, aberastu. |



|   |                                    |   |  |
|---|------------------------------------|---|--|
| <b>KALITATE BATZORDEA<br/>GOGOBEKETZEA NEURTZEA</b>                 | Ainhoa Bustinza                    | R. Saez de C.<br>M. Agirreazkuenaga<br>I. Intxausti<br><b>M. Mejjide*</b> | V-92a errebisatu<br>Az-eten berrikuspenarekin jarraitzea, eraginkortasuna eta efizientzia handitzeko.<br>Barne eta kanpo auditoretzen azterketa . Epe labur, ertain eta luzerako proposamenak egin.<br>Dokumentazioaren kudeaketa berrikusi. |
| <b>EUSKARAREN ERABILERA<br/>BATZORDEA</b>                           | Ainhoa Bustinza                    | I. Pardo<br>P. Bidarte<br><b>M. Lizartza*</b>                             | Txosten ereduak euskaratu eta plantilari hedatu<br>Euskaraz egiten diren txostenen kopurua handitu.  |
| <b>BERDINTASUN PLANAREN<br/>BATZORDEA</b>                           | Arrate Oianguren                   | Maite Ruiz<br>B. Kortabarria<br><b>E. Bidegain*</b>                       | Berdintasun plana diseinatzeko hasi.   |
| <b>KANPO EKIMENA BATZORDEA<br/>(ESTATUKOA ETA<br/>NAZIOARTEKOA)</b> | Nekane Zabaleta                    | <b>M. Casado*</b><br>R. Aliaga  | SICI-ko tailerretan parte hartu eta plantilari horren berri eman.<br>STESSIE proiektuaren tailerretan parte hartu eta plantilari horren berri eman.  |
| <b>BERRIKUNTZAREN ZAINZA<br/>BATZORDEA</b>                          | Arrate Oianguren<br>Xabier Balerdi | <b>M. Uribarren*</b><br>C. Bedoya<br>J. M. Arakama                        | Berrikuntza pilotajea proposatu.<br>Pilotajearen jarraipena egin.  |
| <b>EGUNERATZE<br/>NORMATIBORAKO<br/>BATZORDEA (LEX)</b>             | Arrate Oianguren                   | S. Celaya<br><b>A. Mendiola*</b><br>X. Mendoza                            | Eguneratu edo landu beharreko araudia identifikatzea.<br>Sharepointa eguneratu eta elikatu.<br>Plantillari hedatzea.   |
| <b>LHKO BATZORDEA</b>   | Ainhoa Bustinza                    | I. Lasso<br><b>J. Bollar*</b><br>M. Mejjide                               | LHrekin elkar lana.<br>LH-ko dokumentazioa prestatu ikasturte bukaerarako eta ikastetxei helarazi.   |



|   |                                     |   |   |
|---|-------------------------------------|---|---|
| <b>PROZEDURA<br/>ELKARRIZKETA-<br/>LAGUNTZAILEAK</b>      | Nekane Zabaleta                     |   |   |
| <b>PROZEDURA<br/>KOADERNO DIGITALA</b>                    | Nekane Zabaleta<br>Arrate Oianguren | M. Castillo<br><b>A. Jaio*</b>                  | Konpetentzietan oinarritutako curriculumari jarraituz, koaderno digitala eta horren konprezio dokumentalaren jarraipena egitea. |
| <b>PROZEDURA<br/>IKUSKARIEN HARRERA ETA<br/>TUTORETZA</b> | Arrate Oianguren                    | A. Epelde<br>Marga Ruiz<br><b>A. Ximeno*</b>    | <b>Taldea:</b><br>Prozedura berrikustea.<br>Ikuskarrien profila errubrikatara eraman eta ebaluazio prozesuetan profila erabili. |
| <b>ESKOLA KONTSEILUAK</b>                                 | Ainhoa Bustinza                     | A. Epelde<br><b>A. Martin*</b><br>M: Etxebarria | Prozeduraren arabera jardun   |

## Hezkuntza Sailarekin lankidetzan aritzeko jarduerak

| Jarduera  | Ikuskaritza zentrala | Arduraduna | Kideak                                |
|---|----------------------|------------|---------------------------------------|
| <b>PROZEDURA<br/>IRAKASLEEN ATXIKIPENAK</b>                                 | Xabier Balerdi       |            | Lurralde-buruak                       |
| <b>PROZEDURA<br/>BATXILERGOKO SARI BEREZIAK</b>                             | Nekane Zabaleta      |            | <b>P. Tomas*</b><br>I. Olaskoaga      |
| <b>PROZEDURA<br/>JAZARPEN-AGINDUAN<br/>OINARRITUTAKO<br/>BITARTEKARITZA</b> | Xabier Balerdi       |            | S. Celaya<br>A. Mendiola<br>A. Uranga |



HEZKUNTZA SAILA  
 Hezkuntza Sailburuordetza  
 Hezkuntza Ikuskaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
 Viceconsejería de Educación  
 Inspección de Educación

|   |                                   |  |
|---|-----------------------------------|--|
| <b>PROZEDURA</b><br><b>ESKOLATZE BATZORDEAK</b>                               | Xabier Balerdi                    | M. Jauregui<br>J.M. Santiago<br>M.J. Fernandez                                   |
| <b>PROZEDURA</b><br><b>LEKUALDATZE-LEHIAKETEN</b><br><b>BAREMAZIOA</b>        | Xabier Balerdi                    | R. Saez de Cortazar; I. Lasso<br>R. Martinez; J. Idoiaga; L. Guinea<br>A. Ximeno |
| <b>PROZEDURA</b><br><b>UNIBERTSITATERA SARTZEKO</b><br><b>EBALUAZIO-PROBA</b> | Nekane Zabaleta<br>Xabier Balerdi | Arloetako koordinatzaileak<br>M. Agirreazkuenaga                                 |



### III. ERANSKINA



# FORMAZIO PLAN INTEGRALA 2024-2025



## AURKIBIDEA

### 0.- INGURUABARRAK

### 1.- FORMAZIO IBILBIDEA

### 2.- HELBURUA

### 3.- IKUSKARIAREN PROFILA

### 4.- IKUPeko JARDUERA ILDOAK

### 5.- IKUSPEGI OROKORRA

### 6.- IKASTURTEKO FORMAZIO SAIOAK

### 7.- BALORAZIO GALDETEGIA

### 8.- FORMAZIO SAIOEN PLANIFIKAZIOA



## 0.- INGURUABARRAK:

Etorkizuneko euskal hezkuntza-sistema diseinatzen ari den une honetan, Hezkuntza Ikuskaritzak eredu behar du izan, hezkuntza-komunitateari begirada profesionala, independentea eta kualifikatua eskainiz, eta guztion artean eraikitzen ari garen bide horretan, formazio plan integral hau tresna ezin egokiagoa dela sinetsita gaude.

Testuinguru honetan, azken ikasturtean ikuskariaren profil kompetentziala definitu dugu, egungo gizarteak zehazten dituen erronkei erantzun gaurkotua eta eraberritua emate aldera. Identitate profesional honek gidatu behar gaitu ikuskari profil gaurkotua zehazten jarraitzeko.

Hori dela eta, beharrezkoa da ikuskaritzak prestakuntza plana ezartzea, ikuskariak honako behar hauei erantzun dieten funtsezko kompetentziak garatu ahal ditzaten:

- Egokitzapen teknologikoa: Ikuskariak teknologia berrietan trebatzen jarraitu eta beraien eginkizunetarako behar duten kompetentzia digitala zehatz identifikatu beharko litzateke.
- Trebetasun tekniko espezifikoaren hobekuntza: Prestakuntza espezializatua arlo funtzionalen arabera, zehaztutako ikuskarien profilari erantzuteko.
- Kompetentzia artikulatzaileen garapena: lidergoa, komunikazioa, taldeen kudeaketa eta arazoaren ebazpena, besteak beste.
- Araudiaren ezagutza: Sektore bakoitzari aplikatu dakioken indarreko araudiarekin lotutako prestakuntza.
- Berrikuntza eta sormena: Pentsamolde berritzailea sustatzea, erronka berriei irtenbideak emateko.

Plan hau bat dator erakundeak lehiakortasuna bultzatzeko, eraginkortasun operatiboa hobetzeko eta langileen hazkunde profesionala sustatzeko duen estrategiarekin, egungo eta etorkizuneko erronketarako prestatuz.





## 1.- FORMAZIO IBILBIDEA

Jarraian, azken ikasturteetan egindako prestakuntza-ibilbidearen laburpena aurkeztuko dugu.

Aldi honetan, funtsezko gaitasunen garapenean oinarritutako ikaskuntza-ikuspegia finkatu dugu, ingurune profesional eta akademikoaren egungo eskaeretara egokituz. Askotariko gaiei buruzko saioak eman dira, trebetasun teknikoak eskuratzetik hasi eta zeharkako kompetentziak indartzeraino, hala nola lidergoa edo komunikazio eraginkorra. Halaber, irakaskuntza-metodologia berriak txertatu ditugu, baliabide teknologikoak gure egunerokoan txertatuz.

Azken ikasturte hauetako prestakuntza-ibilbidea ikuskarion garapen pertsonal eta profesionalean eta uneko beharretan oinarritu da. Etengabeko ikaskuntza funtsezko zutabea izango da etorkizuneko erronken aurrean ikuskariak izan behar duen identitate profesionalari erantzuteko.



Azken ikasturtetan egindako formazioaren azterketa:



Azken 5 ikasturtetako formazio saio gehienak curriculum eta ebaluazio ardatzari dedikatu zaizkio, gutxien berriz, euskarari. Kalitatea kudeatzeko sistemari buruzko formazioa bereziki landu zen 2019-2021 ikasturtetan baina ez zaio jarraipenik eskaini ondorengotan.

2023-2024 ikasturtean digitalizazioak hartu zuen garrantzi nabarmena.

Formazioak hirurteko planen helburu estrategikoekin eta ikasturte bakoitzeko helburuekin bat etorri beharko luke eta aldi berean, formazio plan integralak ildoan behar, koherentzia eta erantzun orekatuari erantzun behar dio.



## 2.- HELBURUA:

Hezkuntzako ikuskaritzarako 2024-2025eko prestakuntza-plan integralaren helburua ikuskarien kompetentziak indartzea da, hezkuntza-ikuskatze eraginkorra hauspotuz eta etengabeko hobekuntza sustatuz. Curriculumaren ezarpenaren jarraipenean (ebaluazio hezitzailean bereziki), aholkularitzan, elkarbizitzan eta bitartekaritzan, pertsonen ebaluazioan eta teknologien erabileran trebetasunak garatzea du helburu, bai eta ikuskaritzan ikuspegi inklusiboa eta ekitatiboa sustatzea ere. Gainera, ikuskariek hezkuntza-sistemaren erronken aurrean duten lidergoa eta egokitzeko gaitasuna indartu nahi ditu, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuen araudia eta kalitatea betetzen direla ziurtatuz.



### 3.- IKUSKARIEN PROFILA:




#### DESKRIPTORE KOMPETENTZIALAK

##### KOMPETENTZIA

|                             |  |  |                                |
|-----------------------------|--|--|--------------------------------|
| K1 Ikuskatzea eta kontrola. | Ikastetxeen funtzionamenduaren ikuskatzea eta kontrola   | Irakaslanaren eta zuzendaritza funtzioaren ikuskatzea    | Araudia betetzearen zaintza    |
| K2 Ebaluazioa               | Irakaslanaren eta zuzendaritza funtzioaren ebaluazioa  | Ikastetxeen ebaluazioa                                   | Norbere lanaren ebaluazioa     |
| K3 Aholkularitza            | Aholkularitza eta orientazioa hezkuntza komunitateari  | Informazioa hezkuntza komunitateari eta administrazioari |                                |
| K4 Bitartekaritza           | Hezkuntza komunitateko sektoreen arteko bizikidetza-gatazken aurrean bitartekaritza  |  |                                |
| K5 Komunikazioa             | Txostenen bidezko komunikazioa   | Komunikazio-estrategia eraginkorrak                      | Ezagutza digitala              |
| K6 Konpromiso profesionala  | Hobekuntza eta kalitatearekiko konpromisoa   | Etengabeko garapen profesionala                          | Partehartzea eta lankidetzatza |
| K7 Lidergoa                 | Lidergoa (antolatze eta planifikatzeko gaitasuna, malgutasuna eta aldaketetara egokitzeko gaitasuna, sormena, arreta eta behaketa, talde-lana ...) |  |                                |



## 4.- IKUPeko JARDUERA ILDOAK

| A1: IKUSKARITZA   | A2: IKASTETXEAK   | A3: LANKIDETZA  |
|---|---|---|
| ER1: IKUSKARITZAREN HOBEKUNTZA  | ER2: IKASTETXEETAN ERAGITEKO ESTRATEGIAK  | ER3: LANKIDETZAREN SUSTAPENA  |
| <h3>2024-2025 Helburuak</h3>  |   |   |
| 1. ARDATZA  | 2. ARDATZA  | 3. ARDATZA  |
| <p>1. Egun ikuskaritzan dugun antolaketa eta lan egiteko modu berriak pilotatzea</p> <p>2. Ikuskarion Lan Eskaintza Publikoa antolatzea.</p>  | <p>3. Irakaskuntza funtzioaren ebaluazioarekin lotutako hainbat prozeduratan hobekuntzak txertatzea.</p> <p>4.  <b>Ikastetxeetako lidergoan hobetzen jarraitzea, ebaluazio eredu berria inplementatuz proiektuen kalitatea eta kantitatea areagotzeko.</b></p> <p>5.  <b>Ikasleen ongizatea sustatzeko ikastetxeetako estrategiak eta protokoloen ezarpena gainbegiratzea, elkarbizitzari probentziotik eraginez, Bizikasik ezartzen duenari jarraituz.</b></p> <p>6.  <b>Curriculumaren inplementazioaren ikuskatzea egitea, ikasleen konpetentzietan oinarritutako ebaluazio hezitzailea areagotzeko.</b></p> | <p>7. 2024-2025 ikasturtean indarrean dauden hezkuntza sailaren proiektu eta ekimenen garapenean parte hartzea.</p> <p>8. Ingurune hurbileko, Estatuko eta Europako ikuskaritzekin lankidetzan aritzea, bai eta hezkuntza-inguruneke beste erakunde batzuekin ere, berrikuntza sustatzen duten jardunbide egokiak trukatzeko.</p> |
| <p>9.  <b>Izaera transbertsala: Pertsonak. Identitate profesionalak garatzen jarraitzea (ikuskarriak eta irakasleak)</b></p> |   |   |



## 5.- IKUSPEGI OROKORRA

Ikuskarien formazioa ikuskariek izan behar dituzten konpetentziak eta 2024-2025erako helburuak kontuan izanik antolatu da:

|           | KONPETENTZIAK                          | K1. Ikuskatzea eta kontrola |      |      | K2. Ebaluazioa |      |      | K3. Aholkularitza |      | K4. Bitartekaritza | K5. Komunikazioa |      |      | K6. Konpromiso profesionala |      |      | K7. Lidergoa |
|-----------|--|-----------------------------|------|------|----------------|------|------|-------------------|------|--------------------|------------------|------|------|-----------------------------|------|------|--------------|
|           |  | K1.1                        | K1.2 | K1.3 | K2.1           | K2.2 | K2.3 | K3.1              | K3.2 | K4.1               | K5.1             | K5.2 | K5.3 | K6.1                        | K6.2 | K6.3 | K7.1         |
| HELBURUAK | H1 ANTOLAKETA                          |                             |      |      |                |      |      |                   |      |                    |                  |      |      |                             |      | 2    |              |
|           | H2 LEP                                 |                             |      |      |                |      |      |                   |      |                    |                  |      |      |                             |      |      |              |
|           | H3 IRAKASKUNTZA FUNTZIOAREN EBALUAZIOA |                             |      |      |                |      |      |                   |      |                    |                  |      |      |                             |      |      |              |
|           | H4 LIDERGOA                            |                             |      |      | 6              |      |      |                   |      |                    |                  |      |      |                             |      |      | c            |
|           | H5 ONGIZATEA                           |                             |      |      |                |      |      |                   |      | b                  |                  | 7    |      |                             |      |      |              |
|           | H6 CURRICULUMA ETA EBALUAZIOA          | 1                           |      |      |                | 5    |      |                   |      |                    |                  |      |      |                             |      |      |              |
|           | H7 PROIEKTUAK                          |                             |      |      |                |      |      |                   |      |                    |                  |      |      |                             |      |      |              |
|           | H8 KANPO HARREMANAK                    |                             |      |      |                |      |      |                   |      |                    |                  |      |      |                             |      |      |              |
|           | H9 IDENTITATE PROFESIONALAK            |                             |      |      |                |      |      | a                 |      |                    | 3                |      | IE   |                             | 4    |      |              |



## 6.- IKASTURTEKO FORMAZIO SAIOAK:

2024-2025 ikasturtean aurreikusten diren formazio saioak honakoak dira:

### 6.1. OSOKO SAIOAK



**BARNE ETA KANPO EBALUAZIOA**



**IKUSKARITZAREN ANTOLAKETA ETA BERRIKUNTZA**



**TXOSTENGINTZA**



**IDENTITATE PROFESIONALAK**



**CURRICULUMA ETA EBALUAZIOA**



**LIDERGOA**



**EUSKARA ETA HEZKIDETZA**



Horietaz gain, espezializazio taldeak formazio saio ezberdinak antolatuko ditu ikasturtean zehar.

## 6.2. ZONAKO FORMAKUNTZA ETA GOGOETA GUNEA

a) Ikasturtean zehar taldekako formazioa bultzatuko da. Elkarrekin ikasteko dinamikak jarriko dira martxan hainbat gai lantzeko. Artikulu, liburuetakako kapitulu edo bideoak erabiliko dira azterketa kritikoa eta taldeko hausnarketa bultzatzeko. Saioak zonaburuak gidatuko dituzte eta ikuskaritza batzordeak egingo du jarraipena. Honakoak izango dira helburuak:

- Pentsamendu kritikoa garatzea
- Ikaskuntza autozuzendua eta elkarrekin ikastea sustatzea
- Hausnarketa eta azterketa sakona bultzatzea
- Diziplinarteko ikuspegia osatzea
- Erabilpen praktikoa bilatzea



**Aholkularitza**



**Bitartekaritza**



**Lidergo gaitasuna**

b) Praktikaren gaineko ikaskuntza. Kasu praktikoen azterketan oinarritutako da eta zonalde bakoitzean antolatuko da.






### 6.3. IKUSKARIEN ELKARTEAK PROPOSATUTAKO FORMAZIOA

Ikuskarien elkarteak 2024-2025 ikasturteko bigarren hiru hilabeteen formazio saio bat aurreikusten du, ikuskarien marko kompetentziarekin eta ikasturte honetako planaren helburuekin lotuta. Saioa Adimen Artifizialari buruzkoa izango da.

## Time-line





## 6.1. IKUSKARI BERRIAK

Bestalde ikuskari berriek egokitutako formazio plana dute. Berriazko formazioaren azken helburua ikuskariek, egoera ezberdinetan, beraien jarduera modu eraginkorrean bete ahal izateko kompetentziak garatzea da.

Formakuntza ziklikoa izango da eta ikuskari berriak sartzen den unetik aurrera hasiko du norbanako zikloa. Ikuskari bakoitzak modulu guztiak egin beharko ditu eta formazioa osatua dagoela kontsideratuko da horiek betetzen dituen unean. Beraz, ikuskari bakoitzaren formazio ibilbidea pertsonalizatua izango da.

Formazio moduluak kompetentzia eta deskriptore kompetentzialekin erlazionatuta daude eta ikuskarien lan beharren arabera antolatu dira. Moduluak hilean behin egingo dira. Formazioa lan-mintegien edo prestakuntza-saioen bidez gauzatu ahal izango da.

Maila honetako formazioa lurralde artekoa izango da eta aurrez aurre egitea lehenetsiko da. Harrera lan taldeak antolatuko ditu formazio moduluak eta ikuskari bakoitzaren formazio ibilbidearen jarraipena egingo du. Lan talde horrek modulu bakoitzaren balorazioak jasoko du.

| Tokia / eguna             | Arduraduna                             | Jarduera   |                             |
|---------------------------|--|--|-----------------------------|
| Gipuzkoa<br>Irailak 17/24 | X. Elozegi<br>X. Mendoza<br>I. Guirado | <b>1.</b> Kontrola, Digitalizazioa, Kalitatea, Aplikazioak (V92, egutegiak, W67, EDD, matrikula...)  | K5 Komunikazio kompetentzia |
| Bizkaia<br>Urriak 8/15    | J. Solabarrieta<br>J. Bollar           | <b>2.</b> Modulua, Txostena, Bisita  | K5 Komunikazio kompetentzia |
| Araba<br>Azaroa           | I. Pardo                               | <b>3.</b> Protokoloak (elkarbizitza, jazarpena, babesgabetasun, suizidioa,...)                       | K4 Bitartekaritza           |
| Bizkaia<br>Urtarrila      | A. Baraietxaburu<br>A. Oianguren       | <b>4.</b> Zuzendaritza: Hautaketa, Funtzioaren ebaluazioa. Irakasleak: Praktikak, Irakasleen profila | K2 Ebaluazioa               |
| Bizkaia<br>Otsaila        | K. Totorikaguena<br>Marga Ruiz         | <b>5.</b> Ikuskatzea: curriculum, IUP, memoriak, eskola-emaizak                                      | K1 Ikuskatzea eta kontrola  |
| Bizkaia<br>Martxoa        | A. Mendiola<br>A. Eguiraun             | <b>6.</b> Araubidea, Enplegatutako publikoaren disziplina araubidea                                  | K3 Aholkularitza            |
| Gipuzkoa<br>Maiatza       | M. Mejjide<br>X. Xxxxxx                | <b>7.</b> Misio, bisio eta balioak. Balio etikoak. Kalitate sistema                                  | K6 Konpromiso profesionala  |





## 8.- FORMAZIO SAIOPEN PLANIFIKAZIOA

1

|   |   |
|---|---|
| <b>FORMAZIOAREN GAIA: EBALUAZIO KONPETENTZIALA</b>  |   |
| <b>Moduluaren arduradunak:</b>  | IKUSKARITZA ZENTRALA  |
| <b>Hizlariak</b>  | SANTI DIAZ DE SARRALDE<br>EDUARDO UBIETA  |
| <b>Moduluaren iraupena:</b><br>(orduak)   | 9:30- 14:00   |
| <b>Saiopen denboralizazioa:</b><br>(egunak, aurrez aurreko, online...)                                      | 2024KO IRAILAREN 27AN<br>PRESENTZIALA   |
| <b>Lekua:</b>   | BILBOKO LURRALDE ORDEZKARITZA   |
| <b>Helburu nagusia:</b><br>(Parte-hartzaileek modulua amaitzean lortzea espero denaren deskribapen laburra) | Konpetentzietan oinarritutako ebaluazio hezitzailean trebatzea.   |
| <b>Helburu espezifikoak</b>   | Ikastetxeetan egiten dugun esku-hartzean, ebaluazio hezitzailean lagunduko duen ikastetxeetako barne- eta kanpo-emaitzen irakurketa bateratua egitea. |



|  |   |
|--|---|
| <b>Oinarrizko jakintzak:</b>                         | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hezkuntza-ebaluazioaren oinarriak eta ikuspegiak</li> <li>• Ikastetxeetako barne eta kanpo emaitzen azterketa.</li> <li>• Ebaluazio kualitatibo teknikak eta tresnak.</li> <li>• Ebaluazioaren datuak eta analisiak erabiltzea etengabeko hobekuntzarako.</li> </ul>   |
| <b>Jarduerak:</b>                                    | Hitzaldiak  |
| <b>Baliabideak:</b>                                  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Giza baliabideak</li> <li>- Gaikako arlo bakoitzean espezializatutako prestatzaileak</li> <li>• Ebaluazioari buruzko dokumentazioa. <ul style="list-style-type: none"> <li>- Baliabide digitalak: online jarraitzeko aukera; PPT aurkezpenak.</li> <li>- Bertaratze orriak</li> <li>- Ebaluazio-tresnak</li> </ul> </li> </ul> |
| <b>Metodologia:</b>                                  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Adituen aurkezpena<br/>Zalantzak partekatzeko tarteak zabaltzea</li> </ul>   |
| <b>Ebaluazioa:</b><br><b>Jardueraren ebaluazioa:</b> | Galdetegia  |
|  |   |



2

**FORMAZIOAREN GAIA: IKUSKARITZAREN ANTOLAKETA ETA BERRIKUNTZA**

|   |  |
|---|--|
| <b>Moduluaren arduradunak:</b>  | IKUSKARITZA ZENTRALA   |
| <b>Hizlariak</b>  | ADOSTEKE   |
| <b>Moduluaren iraupena:</b><br>(orduak)   | 9:30- 14:00  |
| <b>Saioen denboralizazioa:</b><br>(egunak, aurrez aurreko, online...)                                       | 2024KO AZAROA<br>PRESENTZIALA  |
| <b>Lekua:</b>   | Gipuzkoa   |
| <b>Helburu nagusia:</b><br>(Parte-hartzaileek modulua amaitzean lortzea espero denaren deskribapen laburra) | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Antolaketa eredu eta joera ezberdinak ezagutzea.</li> <li>• Erakundeetan berrikuntzak duen garrantzia ulertzea.</li> <li>• Erakundeen eraldaketak aztertzea.</li> </ul> |
| <b>Helburu espezifikoak</b>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikuskaritzan berrikuntza nola hedatu aztertzea.</li> <li>• Berrikuntzarako metodologia eta tresnak ezagutzea.</li> </ul>  |
| <b>Oinarrizko jakintzak:</b>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Antolaketa eredu ezberdinak. Gaur egungo joerak.</li> <li>• Berrikuntza kontzeptua.</li> </ul>  |



|  |   |
|--|---|
|  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Berrikuntza metodologiak eta tresnak.</li> <li>• Kasu arrakastatsuen adibideak.</li> </ul>   |
| <b>Jarduerak:</b>                                    | Hitzaldiak  |
| <b>Baliabideak:</b>                                  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Giza baliabideak</li> <li>- Gaikako arlo bakoitzean espezializatutako prestatzaileak</li> <li>• Ebaluazioari buruzko dokumentazioa.             <ul style="list-style-type: none"> <li>- Baliabide digitalak: online jarraitzeko aukera; PPT aurkezpenak.</li> <li>- Bertaratze orriak</li> <li>- Ebaluazio-tresnak</li> </ul> </li> </ul> |
| <b>Metodologia:</b>                                  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Adituen aurkezpen</li> <li>• Zalantzak partekatzeko tartea zabaltzea</li> </ul>  |
| <b>Ebaluazioa:</b><br><b>Jardueraren ebaluazioa:</b> | Galdetegia  |



3

## FORMAZIOAREN GAIA: TXOSTENGINTZA

|   |  |
|---|--|
| Moduluaren arduradunak:   | IKUSKARITZA ZENTRALA   |
| Hizlariak   | JON SIMON GARTZIA eta JANIRE BOLLAR<br>INMACULADA CERECEDA   |
| Moduluaren iraupena:<br>(orduak)  | 9:30- 14:00  |
| <b>Saioen denboralizazioa:</b><br>(egunak, aurrez aurreko, online...)   | 2024KO AZAROAN<br>PRESENTZIALA   |
| <b>Lekua:</b>   | ARABA  |
| <b>Helburu nagusia:</b><br><br>(Parte-hartzaileek modulua amaitzean lortzea espero denaren deskribapen laburra) | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikuskarien idatzizko komunikazio konpetentzia sendotzea.</li> <li>• Ikuskariaren txostenaren egitura aztertzea.</li> <li>• Txostenetan erabiltzen den euskara zaintzea.</li> </ul>                          |
| <b>Helburu espezifikoak</b>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikuskarien txostenen egitura barneratzea.</li> <li>• Txostenen fundamentazioa arauaren interpretazioa ezagutzea.</li> <li>• Hizkuntzaren zuzentasuna eta egokitasunaren garrantziaz hausnartzea.</li> </ul> |
| <b>Oinarrizko jakintzak:</b>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Txostenaren egitura</li> <li>• Hezkuntza arauaren interpretazioa</li> <li>• Txostenaren koherentzia teknikoak</li> <li>• Euskararen erabilpena</li> </ul>   |
| <b>Jarduerak:</b>   | Hitzaldiak eta Tailerra  |





|  |  |
|--|--|
| <p><b>Baliabideak:</b></p>                                   | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Giza baliabideak</li> <li>- Gaikako arlo bakoitzean espezializatutako prestatzaileak             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Txostengintzari buruzko dokumentazioa.</li> <li>- Baliabide digitalak: online jarraitzeko aukera; PPT aurkezpenak.</li> <li>- Bertaratze orriak</li> <li>- Ebaluazio-tresnak</li> </ul> </li> </ul> |
| <p><b>Metodologia:</b></p>                                   | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Adituen aurkezpena</li> <li>• Talde-lana</li> </ul>   |
| <p><b>Ebaluazioa:</b><br/><b>Jardueraren ebaluazioa:</b></p> | <p>Galdetegia</p>  |
|  |  |



4

## FORMAZIOAREN GAIA: IDENTITATE PROFESIONALAK

|   |   |
|---|---|
| <b>Moduluaren arduradunak:</b>  | IKUSKARITZA ZENTRALA  |
| <b>Hizlariak</b>  | MAIKA GIL<br>CARMEN SAN JUAN  |
| <b>Moduluaren iraupena:</b><br>(orduak)   | 9:30- 14:00   |
| <b>Saioen denboralizazioa:</b><br>(egunak, aurrez aurreko, online...)   | 2025EKO URTARRILAN<br>PRESENTZIALA  |
| <b>Lekua:</b>   | BIZKAIA   |
| <b>Helburu nagusia:</b><br><br>(Parte-hartzaileek modulua amaitzean lortzea espero denaren deskribapen laburra) | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakasleen garapen profesionalaz hausnartzea.</li> <li>• Irakasleen profil ezberdinak eta beraien oinarriak ezagutzea.</li> <li>• Profilaren erabilpen praktikoaz jabetzea.</li> </ul>                                       |
| <b>Helburu espezifikoak</b>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakasleen garapen profesionalaren kontzeptua jasotzea.</li> <li>• Kataluinako profilaren oinarri eta egituraz hausnartzea.</li> <li>• Irakasleen garapen profesionalean dauden praktika berritzaileak ezagutzea.</li> </ul> |
| <b>Oinarrizko jakintzak:</b>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Garapen profesionala</li> <li>• Irakasleen identitate profesionala</li> <li>• Profilaren egitura</li> <li>• Irakasleen mentorizazioa</li> <li>• Irakasleen ebaluazioa</li> </ul>   |
| <b>Jarduerak:</b>   | Hitzaldiak  |



|  |  |
|--|--|
| <p><b>Baliabideak:</b></p>                                   | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Giza baliabideak</li> <li>- Gaikako arlo bakoitzean espezializatutako prestatzaileak             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Identitate profesionalari buruzko dokumentazioa.</li> <li>- Baliabide digitalak: online jarraitzeko aukera; PPT aurkezpenak.</li> </ul> </li> <li>- Bertaratze orriak</li> <li>- Ebaluazio-tresnak</li> </ul> |
| <p><b>Metodologia:</b></p>                                   | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Adituen aurkezpena</li> </ul>   |
| <p><b>Ebaluazioa:</b><br/><b>Jardueraren ebaluazioa:</b></p> | <p>Galdetegia</p>  |
|  |  |



5

## FORMAZIOAREN GAIA: CURRÍCULUM ETA EBALUAZIOA

|   |  |
|---|--|
| <b>Moduluaren arduradunak:</b>  | IKUSKARITZA ZENTRALA   |
| <b>Hizlariak</b>  | ADOSTEKE   |
| <b>Moduluaren iraupena:</b><br>(orduak)   | 9:30- 14:00  |
| <b>Saioen denboralizazioa:</b><br>(egunak, aurrez aurreko, online...)   | 2025EKO OTSAILA-MARTXOA<br>PRESENTZIALA  |
| <b>Lekua:</b>   | GIPUZKOA   |
| <b>Helburu nagusia:</b><br><br>(Parte-hartzaileek modulua amaitzean lortzea espero denaren deskribapen laburra) | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Konpetentzien ebaluazioa lantzea.</li> <li>• Ebaluazio hezitzailearen ezaugarriak ezagutzea.</li> <li>• Ikastetxeen aholkularitzarako tresnak jasotzea.</li> </ul>  |
| <b>Helburu espezifikoak</b>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Curriculumean ebaluazio hezitzaileak duen garrantziaz jabetzea.</li> <li>• Ebaluazio hezitzaileak erabaki metodologikoetan duen eragina ezagutzea.</li> <li>• Konpetentzien ebaluazio hezitzailearen kontzeptua, sistematika eta tresnak jasotzea.</li> </ul> |
| <b>Oinarrizko jakintzak:</b>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Curriculuma eta konpetentziak</li> <li>• Konpetentzien ebaluazioa</li> <li>• Ebaluazio hezitzailea</li> <li>• Ebaluazio metodoak</li> <li>• Ebaluazioa eta kalifikazioa</li> </ul>  |
| <b>Jarduerak:</b>   | Hitzaldiak   |
| <b>Baliabideak:</b>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Giza baliabideak</li> </ul>   |



|  |  |
|--|--|
|  | <p>- Gaikako arlo bakoitzean espezializatutako prestatzaileak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Curriculum eta ebaluazioari buruzko dokumentazioa.             <ul style="list-style-type: none"> <li>- Baliabide digitalak: online jarraitzeko aukera; PPT aurkezpenak.</li> <li>- Bertaratze orriak</li> <li>- Ebaluazio-tresnak</li> </ul> </li> </ul> |
| <b>Metodologia:</b>                                  | Adituen aurkezpena   |
| <b>Ebaluazioa:</b><br><b>Jardueraren ebaluazioa:</b> | Galdetegia   |
|  |  |



6

## FORMAZIOAREN GAIA: LIDERGOA

|   |  |
|---|--|
| <b>Moduluaren arduradunak:</b>  | IKUSKARITZA ZENTRALA   |
| <b>Hizlariak</b>  | FERNANDO TRUJILLO  |
| <b>Moduluaren iraupena:</b><br>(orduak)   | 9:30- 14:00  |
| <b>Saioen denboralizazioa:</b><br>(egunak, aurrez aurreko, online...)   | 2025EKO MARTXOA- APIRILA<br>PRESENTZIALA   |
| <b>Lekua:</b>   | ARABA  |
| <b>Helburu nagusia:</b><br><br>(Parte-hartzaileek modulua amaitzean lortzea espero denaren deskribapen laburra) | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikuskarien lidergo gaitasuna garatzea.</li> <li>• Liderraren ezaugarriak ezagutzea.</li> <li>• Ikuskaritzako lidergoaren definizioan sakontzea.</li> </ul>  |
| <b>Helburu espezifikoak</b>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lider on batek praktikan erabili beharreko irizpidetaz hausnartzea.</li> <li>• Lider baten praktika onak jasotzea.</li> <li>• Liderrak bultzatzeko eta prestatzeko dinamikak ezagutzea.</li> </ul>  |
| <b>Oinarrizko jakintzak:</b>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lidergo kontzeptua</li> <li>• Liderraren ezaugarriak</li> <li>• Ikuskari liderra</li> <li>• Liderazgoa praktikan</li> <li>• Liderrak prestatzeko dinamikak</li> </ul>   |
| <b>Jarduerak:</b>   | Hitzaldiak   |
| <b>Baliabideak:</b>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Giza baliabideak</li> </ul> <p>Gaikako arlo bakoitzean espezializatutako prestatzaileak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lidergoari buruzko dokumentazioa.</li> </ul> <p>- Baliabide digitalak: online jarraitzeko aukera; PPT aurkezpenak.</p> |



|  |   |
|--|---|
|  | <ul style="list-style-type: none"><li>- Bertaratze orriak</li><li>- Ebaluazio-tresnak</li></ul> |
| <b>Metodologia:</b>                                  | Adituen aurkezpena  |
| <b>Ebaluazioa:</b><br><b>Jardueraren ebaluazioa:</b> | Galdetegia  |
|  |   |



7

**FORMAZIOAREN GAIA: EUSKARA ETA HEZKIDETZA**

|   |  |
|---|--|
| <b>Moduluaren arduradunak:</b>  | IKUSKARITZA ZENTRALA   |
| <b>Hizlariak</b>  | EUSKERA: KIKE AMONARRIZ<br>HEZKIDETZA: EMAKUNDE  |
| <b>Moduluaren iraupena:</b><br>(orduak)   | 9:30- 14:00  |
| <b>Saioen denboralizazioa:</b><br>(egunak, aurrez aurreko, online...)   | 2025EKO MAIATZA<br>PRESENTZIALA  |
| <b>Lekua:</b>   | ARABA  |
| <b>Helburu nagusia:</b><br><br>(Parte-hartzaileek modulua amaitzean lortzea espero denaren deskribapen laburra) | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikuskaritzak euskararen normalizazioaren ikuspegitik egin dezakeen ekarpena aztertzea.</li> <li>• Euskararen generoaren ikuspegia ezagutzea.</li> <li>• Ikuskaritzan hezkidetzaren ikuspegia txertatzea.</li> </ul> |
| <b>Helburu espezifikoak</b>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikuskaritzaren euskara protokoloa berrikustea.</li> <li>• Euskara eta hezkidetzaren arteko harremana aztertzea.</li> <li>• Ikuskaritzako hezkidetzaren planerako ideiak jasotzea</li> </ul>                         |
| <b>Oinarrizko jakintzak:</b>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskara normalkuntza</li> <li>• Ikuskaritza eta euskara</li> <li>• Genero ikuspegia euskararen</li> <li>• Hezkidetzaren plana</li> </ul>  |
| <b>Jarduerak:</b>   | Hitzaldiak   |
| <b>Baliabideak:</b>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Giza baliabideak</li> </ul> Gaikako arlo bakoitzean espezializatutako prestatzaileak  |





|  |   |
|--|---|
|  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskarari eta Hezkidetzari buruzko dokumentazioa.             <ul style="list-style-type: none"> <li>- Baliabide digitalak: online jarraitzeko aukera; PPT aurkezpenak.</li> <li>- Bertaratze orriak</li> <li>- Ebaluazio-tresnak</li> </ul> </li> </ul> |
| <b>Metodologia:</b>                                  | Adituen aurkezpena  |
| <b>Ebaluazioa:</b><br><b>Jardueraren ebaluazioa:</b> | Galdetegia  |
|  |   |



## Ikuskari berrientzako formazio moduluak

KONPETENTZIA  
KOMUNIKATIBOA

K5

K.5.3. EZAGUTZA DIGITALA

1

Kontrola  
Digitalizazioa, Kalitatea,  
Aplikazioak(egutegiak, w67,  
DAEa, matrikula...),  
V92

|                                |  |
|--------------------------------|--|
| <b>Moduluaren arduradunak:</b> | <b>Xabier Elozegi, Xabier Mendoza, Imanol Guirado</b>  |
| <b>Moduluaren iraupena:</b>    | 10 ordu  |
| <b>Saioen denboralizazioa:</b> | <b>Antolaketa:</b> 2 egun, 5 ordu. Presentziala.<br><b>Ordutegia:</b> 9:00 – 14:00<br><b>Datak:</b> 2024/09/17 – 2024/09/24  |
| <b>Lekua:</b>                  | <b>Gipuzkoako Hezkuntza Lurralde Ordezkaritza. Donostia.</b><br>3 solairua, Gela Handia.   |
| <b>Helburu nagusia:</b>        | Hezkuntza Ikuskaritzaren esparruan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak eraginkortasunez erabiltzea.   |
| <b>Helburu espezifikoak</b>    | Hezkuntza Ikuskaritzarentzat aitortutako aplikazioen hasierako erabilerako gako minimoak eskuratu.<br>MS365 Ofimatika software paketearen ohiko erabilerarako gako minimoak eskuratu.<br>Sinadura digitalaren prozedura eta aplikazioak erabiltzeko hastapen jarraibideak eskuratu.                                    |
| <b>Oinarrizko jakintzak:</b>   | <b>Ikuskaritzaren Hezkuntza Aplikazioak:</b> sarbidea, erabilera, funtzioak, produkzioak.<br><b>MS 365 inguru digitala,</b> mahaigaineko aplikazioen erabilera Hezkuntza Ikuskaritzan: Onedrive, Outlook, OneNote, Teams.<br><b>Txostenen Sinadura digitala</b> prozesu eta prozedurak: Giltza, Adobe Reader, Izenbox. |

**Jarduerak:****Aplikazio Sarbideak**

- Dauden aplikazioak eta zertarako balio duen bakoitzak

**V92**

- Agenda
  - Praktika: Sartu agendan ekintza bat eta ezabatu ondoren (Gastuak barne)
- Langileak eta egutegiak
  - Begiratu langile bat non dagoen momentu honetan
- Jarduera egitura (Actividad - Linea - Actuación)
- Egiteke dauden jarduerak
- Azaldu laguntza dokumentazioa eta araudia
  - Jarduerak arakatu
  - Jarduera zehatza-generikoak labur, formulario lerro bat ireki eta datuak nondik sartu azaldu, sortutako dokumentua (txostena...) deskargatu.
- Jarduera bilatzailea (Ikuskaritzako jarduera > Jarduerak)
  - Bilatu jarduera azpiprozesuak (Eskola Jazarpena, Absentismo, Eskaerak / jakinarazpenak, Jokabideak zuzentzeko prozedurak).
- Ikuskaritza Jarduera > Koaderno Azalpena
  - Praktika: ikastetxe baten koaderno aztertu (2023-24)
- Kontrol dokumentazioa > Kontsulta dokumentazioa (labur, norbere ikastetxeko dokumentu garrantzitsuenak - HEZIGUNE). Azaldu ahala salseatu.

**W18 EED / DAE**

- Azalpen laburra (zer, zertarako, EED -0 / EED-1...)
- Ikastetxera sarrera azalpena (ikasturte, bertsio, data)
  - Praktika: Sartu ikastetxe batera begiratu irakasle/talde/ordutegiak
- EED Elikatzea (ikasle, irakasle, Notak eta faltak)



- Karguen ordainketa
  - Taldeen kudeaketa
  - Karguen alderaketa
  - Egoera eta itxiera (klik bikoitza, return, irekiera...)
- Zuzendaritza karguak: karguak eta historikoa
  - Norbere ikastetxeetan sartu, zuzendaritzak aztertu
- Absentismoa / Hutsegiteak
  - Itxiera > Ikasleen Absentismo parteen itxiera
  - Ikastetxe baten partea
  - Irakasleen asistentzia

#### **V56 Onarpena eta matrikula**

- Ikasturtea aukeratu
- Ikastetxeak: Kalifikazioak eta hutsegiteak
- Ikasleak: Datu pertsonalak kontsulta, Matrikula bilaketa
- Heziketa eskaintza: Zaurgarritasun kupoak, Baimendu, Ikasgai propioak
- Matrikula: Zerrendak. Matrikula-EDD konkordantzia

#### **W69 Ikasketa-espeditzea**

- Ikasketa-espeditzea: Kontsulta eta inprimatzea > Ikaslearen bilaketa:
  - Historiala deskargatu, Historiala ikusi

#### **W67 HLBP**

- Ikasle bilaketa
- Eskaerak: CNE - Eskolatze malgutzeak

#### **Onedrive > ELKARLAN**

- Sarearen antolaketa



- Onedrive pertsonala / ELKARLAN
- Karpeta antolaketa ereduak
- Excel ezinbestekoak
  - Deskargatutako dokumentuak. Osagarriak > orriari babesa kendu / iragazkia aktibatu
  - Taula formatua eta kalkuloak
- Outlook ezinbestekoak
  - Karpeta antolaketa eta mezu arauak
  - Ataza markatzea
  - OneNote bideratzea
  - Egutegiaren antolaketa
  - Teklatu lasterbide azkarrak
- OneNote ezinbestekoak
  - Koaderno antolaketa
  - Ataza markatzea
  - Teklatu lasterbide azkarrak
- Teams ezinbestekoak
  - Egutegi antolaketa
  - Talde antolaketa
  - Bilera deitu / sartu
- Aplikazioen elkareragingarritasuna

#### **Onedrive > Sarean**

- MS365 (Edge bidez)
  - Mahaigaineko aplikazioekin sinkronizazioa
- Sharepoint
  - Gune garrantzitsuenak eta dokumentuen sinkronizazioa (LEX, Zona)

#### **Sinadura digitala**

- Izenpe (Giltza profesionala)



|                                |  |
|--------------------------------|--|
|                                | <ul style="list-style-type: none"> <li>● Adobe PDF</li> <li>● IZENBOX</li> </ul>   |
| <b>Baliabideak:</b>            | <p>Ordenagailu eramangarriak: NET sarea, pantaila digitala.</p> <p>Hezkuntza Aplikazioak</p> <p>MS365 inguru paketea</p> <p>Adobe Reader</p> <p>IZENBOX</p> <p>Izenpe</p>  |
| <b>Metodologia:</b>            | <p>Presentziala. Gai guztietan aplikazio praktikoak ordenagailuan.</p> <p>Aplikazio praktikoek bideo-soportea garatzen da repositorio batean edozein momentutan eskuragarri.</p>   |
| <b>Ebaluazioa:</b>             | <p>Hezkuntza Ikuskaritzari esleitutako aplikazioen sarbidea ezagutzen du, bakoitzean kudeatzen diren elementu minimoak eta hauen konexioak desberdinduz.</p> <p>Taldean lan egiteko MS365 ofimatika software paketearen aplikazio zehatzetan ohiko elementuak ezagutzen ditu eta gai da beharrezko informazioa bereganatzen.</p> <p>Sortzen dituen txosten eta dokumentuetan sinadura elektronikoa ezartzeko gai da, dagokion kudeaketa prozedurari jarraituz.</p> |
| <b>Jardueraren ebaluazioa:</b> | <p><b>Jardueren ebaluazioa:</b></p> <p>Hezkuntza Aplikazioak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Hezkuntza Aplikazioen XLNeTS sarbidea ezagutzen du eta aplikazio ezberdinetara sartzeko gai da.</li> </ul> <p>V92 Hezkuntza Ikuskaritza</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Norbere agendan ekintza ezberdinak sartzeko gai da.</li> <li>● Agendan dieta-gastu orriak deskargatzeko gai da.</li> </ul>  |



- Langileen agenda eta egutegiak bilatzeko gai da.
- Ikuskaritza Jardueraren egitura ezagutzen du.
- Egiteke dauden jarduerak aztertzekeo gai da.
- Jarduera ezberdinetako laguntza dokumentazioa eta araudia topatzeko gai da.
- Jarduera-ekintzak sortzen duen dokumentazioa arakatu eta deskargatzeko gai da.
- Jardueren bilatzailean iragazki ezberdinak ezagutzen ditu.
- Ikastetxeetako Koadernoan eskegita dauden dokumentu eta ekintza ezberdinak bilatzeko gai da.

#### W18 EED / DAE

- Ikastetxe baten EED mantentura sartu eta elementu ezberdinen arabera bilaketa egiteko gai da.
- EED eta beste Hezkuntza Aplikazio ezberdinen arteko konexioa ezagutzen du.
- Karguen ordainketa ikuskatzeko elementu ezberdinen erabilera ezagutzen du.
- Zuzendaritza karguak eta historikoa aztertzekeo gai da.
- Ikasle-irakasleen absentismo eta hutsegite parteak bilatzeko gai da.

#### V56 Onarpena eta matrikula

- Ikasleen datu pertsonalak kontsultatzeko gai da.
- Ikastetxearen heziketa eskaintza aztertzekeo gai da.
- Matrikula-EED konkordantzia txostena deskargatzeko gai da.
- W69 Ikasketa-espeditentea
- Ikaslearen ikasketa-espeditentea bilatu eta deskargatzeko gai da.

#### W67 HLBP

- HLBP dituen ikasle baten bilaketa egiteko gai da.
- Ikastetxeak bideratutako eskaerak bilatzeko eta aztertzekeo gai da.

#### Onedrive > ELKARLAN eta Sarean

- Sarearen antolaketa eta aplikazioen konexioa ulertzen du.
- Outlook egutegia eta atazak maneiatzekeo gai da.



- Excel aplikazioaren erabileran doitu da, Hezkuntza Aplikazioetatik deskargatutako dokumentuen trataera minimoarekin.
- OneNote aplikazioaren erabilera posibleak ulertu ditu.
- Teams aplikazioaren ohiko talde erabilera ezagutzen du.
- MS365 nabigatzaile bidezko erabilera posibleak ulertu ditu.
- Sharepoint gune ezberdinen azterketa egin du.

#### Sinadura digitala

- Adobe PDF eta Izenbox plataformaren bidezko sinadura digitala kudeatzea lortu du.





## IKUSKARI BERRIENTZAKO FORMAZIO MODULUAK

KONPETENTZIA  
KOMUNIKATIBOA

K5

K.5.1. TXOSTENEN BIDEZKO  
KOMUNIKAZIOA

2

Txostena eta bisita

|   |   |
|---|---|
| <b>Moduluaren arduradunak:</b>  | <b>Jon Simon Gartzia Legarreta eta Janire Bollar Benedicto</b>  |
| <b>Moduluaren iraupena:</b>   | 16 ordu   |
| <b>Saioen denboralizazioa:</b><br>(egunak, aurrez aurreko, online...) | Aurrez aurrekoak 10 ordu: urriaren 8a eta 15a<br>Online: 6 ordu   |
| <b>Lekua:</b>   | Aurrez aurrekoak Bilboko ikuskaritzako gela laranja zein Ordezkaritzako beste gela batean. Deialdian zehaztuko da |



|   |  |
|---|--|
| <p><b>Helburu nagusia:</b></p> <p>(Parte-hartzaileek modulua amaitzean lortzea esperodenaren deskribapen laburra)</p> | <p>Txostenak profesionaltasunez eta irizpidetehnikoz egiteko hasierako gaitasuna garatzea eta Ikuskaritza-bisitaren antolaketa eta garapena</p>  |
| <p><b>Helburu espezifikoak</b></p>  | <ol style="list-style-type: none"> <li>1) Txosten mota nagusiak ezagutzea</li> <li>2) Ereduak erabiltzen hastea</li> <li>3) Kasu praktiko batzuk lantzea</li> <li>4) Ikuskaritza-bisitaren printzipionagusiak lantzea</li> <li>5) Ikuskaritza bisita bat egitea printzipio nagusiak aintzat hartuta</li> </ol> |
| <p><b>Oinarrizko jakintzak:</b></p>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>● Ikuskapen-txostenaren definizioa</li> <li>● Txostena komunikazio tekniko gisa --Txosten baten atalak - Txostenaren ezaugarri orokorrak</li> </ul>   |
|   | <ul style="list-style-type: none"> <li>● Txostenaren hizkuntza-arauak</li> <li>● Ikuskapen-bisita eraginkorra</li> </ul>   |
| <p><b>Jarduerak:</b></p>  | <ol style="list-style-type: none"> <li>1- Aurkezpen teorikoa</li> <li>2- Zenbait ereduren aurkezpena</li> <li>3- Kasu praktikoak lantzea</li> </ol>  |
| <p><b>Baliabideak:</b></p>  | <p>Ordenagailua, fotokopiak eta berriazko sharepointa</p>  |



|  |   |
|--|---|
| <b>Metodologia:</b>                                  | Aurrez aurreko interakzio praktikoa eta ikuskari berrien banako lan pertsonala    |
| <b>Ebaluazioa:</b><br><b>Jardueraren ebaluazioa:</b> | Ikuskari berriei jardueren ebaluazioa eta hobetzeko proposamenak eskatuko zaizkie |

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA SAILA**  
Hezkuntza Sailburuordetza  
*Hezkuntza Ikuskaritza*

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN**  
Viceconsejería de Educación  
*Inspección de Educación*

